

# ...eta **kitto!**

757 zkia. 2011-III-25

ASTEKARIA

TOKIKOM



Eta udaberriarekin bat...  
**BAZKIDE JAIXA!!!**



## KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garijask, industiak...
- Jazarriaren dirulaguntzen transmisioa

AHOLKULARITZA

- Fisikala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak

© 2011 KEIN GROUP. Buz. 10000. Tel: 943 70 25 40. Fax: 943 20 11 70. Email: komunitate@kein.com

Ekarri zure hortzeri zaharra

1.000€

eta 1.000 eurotarainoko deskontua egingo dizugu\*

\* Hartz-inplanteekin egindako tratamenduentzat. Promozioak 2011ko maiatzaren 1era arteko balioa du. EZIN ZAIE beste promozioei GEHITU.



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.  
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)  
Tel. 943 20 85 52



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maider Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Maialen Belaustegi

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

**Tfnoa:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Leire Iturbe

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.050 ale

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHTA:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HARI.-** Zeregin. "Hari honetan daroiat egun guztia". Torlojuaren gorputzan bueltan edo zulo barruan egiten diren helize moduko kanaletako bakoitza. Gaztelazko "rosca". "Ondo ajustau barik dagon harixa laster ixoko da".

**HARI-HARIRA / HARI-HARIXAN / HARI-HARITTIK / HARITTIK.-** Zerbait egiteko zorian. "Hari-harira egon, hill edo bizi". "Platano azala zapaldu dau eta jausi ez da egin, baiña hari-harixan ibilli da". "Granuja horrek harititik ez dau miñik hartu".

**HARIRA.-** Zeozer zehatz-mehatz, justu-justu egin. "Harira pixau biharra dauka urriak".

## ESKUTITZAK

### ARRATE ESKUBALOI TALDEAREN ESKER ONA

Arrate Eskubaloi Taldeak eskerrak eman nahi dizkie honako guzti hauei:

Gure taldeari laguntzeko Eibar eta Realaren arteko neurketa antolatu dutenei; partidura joan ziren eibartarrei; partiduaren berri eman zuten komunikabideei; sarrerak salgai jarri zituzten establezimenduei; foball-zelaiaren sarbideak zaindu zituzten persona anonimoei eta baita leihatilan sarrerak saldu zituztenei ere.

Horrez gainera, beste hauei ere gure esker ona adierazi nahi diegu:

Eibar K.E.-ri, gure deiari erantzutearren eta emandako tratu gozoarengatik; Real Sociedad-i, eskainitako babes eta animoengatik; ETB-ri, neurketa telebistan emateagatik; erakundeei; Gipuzkoako Arbitroen Federazioari; publikitatea jartzen lagundu duten enpresei.

J.D. ARRATE

asteka

HEMEROTEKA

esaldiak

"Dauzkagun seme-alabak onartu egin behar ditugu, hori lehenbizi. Gaurko gurasoek beldurra diote gatatzkari, eta gatatzkariak haurrak indartu egiten ditu. Oso goiz gizarteratzen ditugu, baina gero ez diegu lagatzen benetan behar dutena bizitzeko: haurtzaindegira eramaten ditugu 4-5 hilabeterekin, baina gero 6 urterekin motxila egiten diegu ikastolara joateko"

(Amaia Vázquez, psikologoa)

"Udaberria urtaro zailena da iragartzen, uda aldeko iragarpenetan kontuan izan behar dira-eta tokiko nondik-norakoak; neguan, ostera, zirkulazio planetarioa da nagusi eta horrek markatzen du izango dugun eguraldia. Hala ere, apirila normala baino beroagoa izango dugula esatera ausartzen naiz eta, maiatza eta ekaina, bestalde, askoz ere hotzagoak"


(Anton Uriarte, Geografia doktorea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## a u t u a n

**PARTE-HARTZIAREN GAINEKO KONPROMISUA**

Maixa Eibarko Herritarren Parte-hartze Mahaiak "Parte-hartze konpromezua" izenburuko idatzixa helarazi detse alderdi politiko guztieri, "hauteskunde kanpainia hasi aurretik" dokumentua siñatu deixen. Dokumentuan proposatutako konpromisueri jarraituta, bestiak beste "herritarrak politika publikuen gaineko informaziño osua eukitzia, herritar eta politikuen artian komunikatzeko kanal barrixak sortzia, administraziño elektronikua garatzia eta udal artxibo guztietara sarrera libria eukiko dabela" konpromisua hartzia eskatzen detse politikueri.

**ARMERIA ESKOLAKO IKASLE OHIAK**

Bixar (zapatua) 11.00etatik aurrera hasiko dira Armeria Eskolako ikasle-ohien batzarraren ingurukuak, eskolan bertan. Batzarra amaittuta, 12.00xetan argazki lehiaketako sari banaketia egingo dabe, gero hamaiketakua egin eta talde-argazkixa etartzeko. 13.00ian "Emprender. La experiencia de Anboto" Xabier Uribe-Etxebarriak emongo daben hitzaldixa amaittu eta Arrate hotelian bazkarixa eginda amaittuko dabe jardunaldixa.

**Haurreskoletako bihargiñak murrizketen kontra**

LAB, STEE-EILAS ETA ELA SINDIKATUAK DEITTUTA, MARTITZENIAN ARABA, GI-PUZKOA ETA BIZKAIKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HAUR ESKOLETAN LANUZTEAK egin zituen goizeko 11.00etatik 14.00etara bittartian, bihargiñen lan baldintzeri zein haur eskoletan eskintzen diran zerbitzueri ezarri nahi detsen murrizketen kontrako jarrera erakusteko. Eibarren 12.00xetan jende mordu batzia lortu eban elkarretaratzia egiñ eban Hezkuntza Esparruan, Haurreskolak Partzuegoaren egoitza parian eta, horrez gain, automobilletan protestan jardun eban herrixan go-ra eta behera, karabanan zaratata. Bestalde, sindikatuetako ordezkariak protesta deialdixaren inguruan Hezkuntza Saillak



Partzuego parian, Otaola hiribidian, egindako fotografixia. / SILBIA HERNANDEZ

izandako jarrerarekin keizteko idatzixa zabaldu eban, "lanuztea arrakastatsua ez izateko bihargiñeri egindako presiñuak" salatzen: "Gitxieneko zerbitzuak ezartzerakuan Celaá Sailburuak izandako jarrera salatu nahi dugu, berarendako gitxieneko zerbitzuak diran horrek larregizkuak begittantzen jakuzelako. Haur eskolak emoten daben zerbitzua jendiarendako ezinbestekua dela dirudi, baiña

aldi berian zerbitzu honetan daguan plaza eskintza ez da %40ra aillegatzen". Edozelan be, "Partzuegoak soldatetan murrizketa aplikatzia erabagi ebanian siñatuta daguan Lan Hitzarmena erabat hautsi ebala" salatzeko egin eban mobilizaziñua. Horren harira, "alde baka- rrez egindako murrizketia legez kontrakua dala epaitegixan berretsi dabela" gogoratu dabe sindikatuak.

**Matsarixako industrialdia inaugurau dabe**

**ATZO GOIZIAN INAUGURAU EBEN MATSARIXAKO INDUSTRIALDE BARRIXA** Bernabé Unda Industria, Barrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuak, Miguel de los Toyos alkatiak eta Jose Manuel Iturrate Sprilurreko zuzendari nagusixak. Ekitaldixak enpresa zein instituziñuetako ordezkari morduak alkartu zittuan, bestiak beste erretratuan dagan Rafaela Romero Batzar Nagusixetako presidentia.

Matsarixako goiko aldiari dagan poligono barrixak hainbat jarduera ekonomikorendako lokalak hartzen ditu, hiru eraikiñetan banatuta. Betetzen daben azaleria 59.355 metro karratukua da eta eraikiñak hartzeko moduko azaleria, barriz, 25.209 metro karratukua da. Sprilurrek bertan kokatzeko interesa azaldu daben hiru enpresarekin hartu- monetan jardun dau oiñ arte.

Bestalde, inauguraziñuaren harira, Eva Juez



EAJ alderdiko alkategixak gogor kritikau dau alkatiak izaten diharduan jarrera eta, "beste batzuetan egindakuaren bidetik, oinguan be EAJ-ren Eusko Jaurlaritzak Matsarixako industrialdian egindako inbersiñua ezkutauko ete daben" galde- tu detsa alkatiari.

**Erreballi buruzko billera arrakastatsua**

**ERREBAL PLATAFORMAK EGUAZTENIAN BILLERA IREKIXA DEITU EBAN** Portalean, Errebal Plan Berezia dalakua zertan dan jendiari esplikatzeko. Areto nagusixa beteta, Josu Mendicutek egindako dokumen-

tal laburra proiektu eban. Jarraxan, Plataformako kidiak oiñ arte presentau dittuan eskaeriak eta lorpenak zeintzuk izan diran azaldu eban eta etorkizunian zer egingo dan kontau zetsen han bildutako herritarreri.



Bazkide bizkot ibili!  
eta... ekartizuz lagunak be!!

**KITTO**  
Bazkide Jaixa!!!  
OSTRO  
OSTRO  
JANTZI  
5€  
Apirilak 9, Armeria eskolan  
13:00tik aurrera!!!

**KITTO**  
Bazkide Jaixa!!!  
ostroz  
OSTRO  
JANTZI  
10€  
Apirilak 9, Armeria eskolan  
13:00tik aurrera!!!

Bazkaria:  
PAELLA  
ERRAL DOIA!!  
Edariak  
Postrea  
eta Kafea

- Piskolabisa
- Talde Argazkia
- Umeentzako Tailerrak
- Bazkaria
- PUZGARRIAK
- Zirko-Tailerra
- Bingo Herrikoia
- DJ-a



# Bazkide Jaixa!!!

# Apirilak 9

**Armeria Eskolan**

Sarrerak:  
nagusiak 10 €  
umeak 5 €

...eta kitto!n salgai  
**hilaren 30era arte**

Ordutegia: 12etatik 20etara



asteko

636

datua

proiektu aztertzen dihardue Diputaziñuan, krisixari aurre egiteko laguntza-planari jarraituta. Barrikuntzari lotutako proiektuak totalian 85 millioi euroko inbersiño-bolumena hartzen dabe eta 400 bat gazterendako lanpostuak sortzeko gauza dira.

## Euskal presoan aldeko elkarretaratzia

**EGUAZTENIAN EUSKAL PRE-SUEN ESKUBIDIAK ALDARRIKATZEKO ELKARRETARATZIA EGIN ZAN UNTZAGAN,** udaletxiaren parian, LAB sindikatuak deittuta eta aste honetan bertan aurkeztutako "Euskal presoak lantokietara" izenburuko kanpaiñaren testuinguruan. Honezkeru 100 bat enpresetako sekziño sindikalek bat egin dabe ekimenarekin, baiña kanpaiñak aurrera egiñ ahala enpresa gehixago batzen juatia espero dabe.

### Apirillaren 5ian Madrillera

Bestalde, apirillaren 5erako Madrillen manifestaziñua iraga-



Eguaztenian egindako elkarretaratziaren irudixa.

## Korrikarekin mendira

**DOMEKAN KORRIKAREKIN MENDIRA JUA-TEKO AUKERIA IZANGO DAU NAHI DABENAK,** Korrika Kulturalaren inguruan Klub Deportiboko mendi taldiaren laguntasunarekin antolatutako urteeran: Deba-Lastur-Deba ibilbidia egingo da, gida eta guzti. Izan be, Garbiñe Aizpuruak ikuspuntu historikotik abiatuta esplikaziñuak emoten juango da lau bat orduko iraupena izango daben ibilbidian zihar. Debara trenian juango dira eta horregaittik 09.07xetan alkartuko dira, Arantzako geltokixan.

### Tabernarixerri proposamena

17. Korrika apirillaren 7xan abiatuko da Trebiñutik eta amaieria hamar egun geruago izango dau, Donostian. Bixen bittartian, Eibarrera apirillaren 13an (eguaztana) aillegauko da, aurreikusitakua betez gero illuntzixan, 20.30xak aldera. Halanda be, 17. Korrikaren harira hainbat kultur ekitaldi hartuko dittu Eibarrek, bestiak beste Korrika Txixixa eta kaleko musika emanaldixak. Eta apirillaren 13an bertan, lasterketarako giro aproposa sortu nahixan, Eibarko Korrika Batzordekuak gonbidapen berezixa egin nahi detse taber-



narixerri, "Txixito-pintxo" izeneko ekimenarekin bat egittera animatzeko: "Holan Korrikari ongietorrixa emon eta lasterketako parte-hartzaillieri egun berezi hori kalia eta herriko tabernetan ospatzeko aukeria eskindu nahi detsagu".

Ekimenarekin bat egiteko interesa dakenak apirillaren 6rako izena emoteko aukeria izango dabe, AEK euskaltegiko 943201379 telefono zenbakira deittuta edo eibar@aek.org helbidera idatzitta. Bestalde, ekimenarekin bat ez egittia erabagitta be, egunian bertan tabernak girotzeko musika euskalduna ipintzia eskatu nahi detse, "ia Korrikari ongi etorri berua eskindu eta eibartar guztiak 'euskalakari' izateko aukeria egitten dogun".


## Arrazakerixaren kontra "izoztuta"

**ASTELEHENIAN, HILLAREN 21-IAN ARRAZAKERIXA ETA XENOFBIAREN KONTRAKO EGUNA GOGORATU ZAN** eta,

horren harira, jarduera diferentia antolatu zittuen. Eibarren, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Irun, Tolosa eta Getxon egindakuaren bidetik "Stop Arrazismoa" ekimenak deittutako flashmob-a egin zan 19.30xetan Toribio Etxebarria kalia. Aurretik, baiña, ekimenian parte hartzera animau ziran 100 bat lagunak Txaltxa Zelaixan alkartu eta Eibar Zabali Udaleko inmigraziño zerbitzuko teknikariak emondako instrukziñuak adi-adi entzun zittuen. Jarraixan, Toribio Etxebarria kalia sakabanatzen juan ziran, "izoztuta" bost minutu emonda arrazakerixaren kontrako euren jarrerria erakusteko.

### Irudixak interneten

Antolatzaillien berbetan, "esperientzia oso ona izan zan eta herri baxotxetik aillegatzen diharduen komentarixuengaittik jendiak oso ondo pasau ebala pentsatzen dogu. EAEn ia milla lagun geratuta egon giñan eta, gaiñera, inguruan pasatzen ziharduan jendiaren arreta erakartzia lortu genduan. Hainbat komunikabidek ekimena grabau eta emitidu eben eta, horrez gain, interneten sare sozialak erabillitta eguneko irudixak zabaltzen dihardugu". Interneten [www.stoparrazismoa.org](http://www.stoparrazismoa.org) helbidian sartuta ikusi leikez bideo eta bestelakuak.






## Iparragirreko igogaillurako pasarelia

**EGUAZTEN GOIZIAN HASI ZITTUEN BARRENA KALEKO 1 ZENBAKIXA ETA IPARRAGIRRE KALIA BATUKO DITTUAN** igogailluko pasabidia ipintzeko biharrak. Pasabidia ipiñi ahal izateko garabixa haundi bi erabili bihar dittue eta horretako bat Iparragirre kalia, errepide erdixan kokatu ebenez, biharrak amaittu eta garabixa bertatik kendu bi-

ttartian trafikua moztuta egongo da, bertatik automobilak pasatzerik ez dake-eta. Iparragirre kaliaen hasieran bertan gorago errepidia itxitta daguala aditzera emoteko seiñalizaziñua ipiñi eben eguazte-nian bertan; bidia atzera be zabaldu arte, Saratsuegi (Sautsi) kalera igotzeko Azitaiñetik gora doian biala erabili biharko dabe gidarixak.



## Abontzakuak udaberrixa kolorez betetzen

**DOMEKAN ONGIETORRI KOLORETSU ETA ALAIXA EMON ZETSEN UDABERRIXARI ABONTZAKO ITTURRIXA ALKARTEKUAK** antolatutako jaialdixan. Eguardi partian giro politta sortu eben Egigurentarreneko parkian batutakuak eta, beste urtieta-ko martxari jarraituta, atzera

be gaztetxuak izan ziran protagonista haundiñak, euren marrazki eta globuekin. Martxan egon zan txosnan ibilli ziranen artian, gaiñera, otar pare bat zozketatu zittuen eta sarixa 4.970 eta 6.044 zenbakixendako izan zan. Irabazliak momentuan bertan jaso eben otarra.

# anzorik anzo



## Txontako aparkalekua preparatzen

**Apirillerako erabiltzeko moduan egon biharko da Txontan, sa-soi batian Solac enpresia egon zan tokixan, eraikitzen diharduen aparkaleku barrixak.** Biharrak hasi eta amaitzeko sei aste-ko tartia emon detse Probisa S.L.U. bihargiñen arduria dakan enpresakueri. Behiñ prest daguanian, Errebalen egindakuaren bi-detik behin-behiñeko izaeria eukiko daben parkiña nahi dabenak erabiltzeko aukeria eukiko dabela aurreratu dabe udal ordezkari-xak. Halanda be, Txontakuan ez da gehixeneko denpora tarterik ipiñiko eta behiñ automobilla aparkauta nahi beste ordutan han lagatzeko aukeria eukiko dabe gidarixak. Bestalde, hamen lurra asfaltatzeko asmua dake. Txontako aparkaleku probisonala egit-teko 120.000 euro erabiliko dittue eta 60-70 ibilgailurendako to-xixa eukiko dabela aurreikusten dabe. **Bestalde, Ezker Batua** al-derdiko Eli Gómezek idatziz eskatu dau aparkalekua egitten diharduen tokixan lurraren kalidadia aztertu eta horren gaiñeko deklaraziñorik egin dan. Izan be, horrenbeste urtian tallarrak be-tetako tokixan kontaminaziñorik daguan ala ez jakin nahi dau.

## eibar kaleka

### San Agustin ziharra

Errebal eta Bidebarrieta, kale bixak lotzeko ziharrak daroia San Agustin izena, hain zuzen be merkatu plaziaren eraikiña eraustian geratu dan hutsune parian daguan kale laburrak. Izena betidanik halan euki daben arren, itxuria oin dala gitxi kanbixau zetsen, lurra eta bestelakuak barrizatuta.

**Pegora kopurua: 5**

**Erroldatutakoak: 95**



## ROBERTO LÓPEZ ETXEBERRIA

diseinatzailea



## “Nire abiapuntua JOSKINTZA KLASIKOA da beti”


*Cibeles Pasarelan, Madrid Fashion Week delakoaren 53. edizioan, bilduma onenari L’Oreal saria jaso berri du Etxeberria firmaren atzetik dagoen diseinatzaile eibartarrak. Bartzelonan bizi eta beharra egiten duen Roberto López Etxeberriak askorentzat arrotza eta ezezaguna den munduan barneratzea erabaki zuen eta, horretan hasi eta berehala, bere lanaren errekonozimenduak bata bestearen atzetik agertzen joan ziren, sari formara. Gizonezko modari jarraituta jantzi nahi dituela argi dauka, baina bere abiapuntua den joskintza klasikotik aldendu barik, klasikotzat dauzkan ezaugarriei utsita.*

**- Lehenengo eta behin zorionak eman dizuten sariarengatik, baina aurretik makina bat sari irabazitakoa zara.**

Egia da sari gehiago jaso ditudala aurretik ere, berriki emandakoen artean garrantzitsuenetakoa Creamodan jasotakoa dela esango nuke. Baina hau bereziki garrantzitsuena da, Cibeles Cibelesera ailegatu aurretik, goreneko mailan dago EGO. 74 bilduma aurkeztu dira oraingo honetan eta argi daukat saria jauzia emateko tranpolina dela. Murtzia, Valentzia eta beste pasarela garrantzitsu batzuk egon badaude, baina oraindik ere Madril da estatu mailako modaren epizentroa.

**- Cibelesen saria jaso eta, nolakoak dihardute izaten atzetik etorri diren egunak?**

Telefono deiak uholde txiki baten moduan ailegaten dihardute eta, egia esateko, zoramen moduko bat bizitzen nago. Bestalde, saria dela eta, normala denez, oso pozik nago. Anekdotak modura, moda bilduma hau pasarelan aurkeztu aurretik Elle aldizkariko estilista batekin egonda nengoen eta, bilduma erakutsi nionean zur eta lur, lilurata geratu zen eta bospasei arropa eraman zituen berarekin, Belen Couso janzteko asmoarekin. Beraz, hori ikusita Cibelesera joan aurretik han





zerbait jasotzeko nuen itxaropena nahiko handia zen.

**- Nolakoa da "La piel que habito", saria eman dizun bilduma?**

Nire abiapuntua beti berbera izan da: jostintza klasikoa. Moda munduan behar-rean hasi nintzenetik oso helburu argiari jarraitzen diot beti eta nere ustez galtzen joan den zerbait berreskuratzen ahalegintzen naiz. Frantzia, Britania Handian eta beste hainbat herritan gizonezkoen jantzetan aurrera egiten jakin dute, eboluzioa egon da lehenagotik zeuden balore eta ezaugarri uko egin barik. Baina Espainian balore horiei uko egin eta galtzen, desagertzen joan dira, egoera androginoagoen eta unisex delakoaren mesedetan. Nire kasuan, betidanik nahiago izan dut jostintza klasiko horri begiratu eta abiapuntutzat hartzea. Hortik abiatuta eta oinarritzko ezaugarri horri utsita poliki-poliki joatea gustatzen zait, aldaketak eta berrietasunak modu zolian sartzen.

**- Eta hori nola egiten da?**

Ba, adibidez, ehunen kasuan badaude berez oso aberatsak diren hainbat ehun, beste batzuekin nahasten ibili barik berezko ezaugarri oso aberatsekoak direnak. Orduan, horrelako ehunak euren artean nahastu behar-rean, horietako bat hartu eta neurrian, kontu haundiarekin detaile zoli bat sartzen baduzu, emaitza oso ikusgarria lor daiteke. Modan pausorik pasu joan behar dela pentsatzen dut.

**- Bilduma berri horretara bueltatuta, abiapuntutako hori nola aplikatu duzu?**

Asko landu dudana bilduma da. Aurretik sekula erabili barik nuen ilearen aldeko apustu garbia egitea erabaki nuen. Larrua beste kontu bat da, bilduma honetarako hainbat animaliren ileak erabili ditut, estreinek. Horiek jantzi-talara egokitze behar-rean jardun dutenek egindako artisautza-lanak aipamen berezia merezi du.

**- Pasareletan erakusten diguten hori albo batera lagata, nolakoa da diseinatzaile baten eguneroko beharra?**

Nire kasuan, jarraitu behar-reko bidea edo ildo nagusia oso argi dagoenez, hori beti abiapuntutzat hartuta, moda munduko joerei asko begiratzen diet, batez ere emakumezkoen modan dauden tendentziei, horretan oraindik ere gizonezkoen modan




## SOSLAIA

Roberto López Etxeberria Eibarren jaio zen 1976an eta 2005az geroztik Bartzelonan bizi da. Poltsa eta zorroen inguruko diseinua (2005) ikasi zuen eta, ondoren, 2005-2008 urteen bitartean Moda Diseinuko Goi Mailako ikasketak egin zituen, biak ere Bartzelonako Felicidad Duce-n. Horrez gain, IDEP-en argazkilaritzaren inguruko ikastaroa ere amaitu zuen 2008an. Bartzelonara joan eta berehala, 2005ean bertan Serguei Povaguin diseinatzailearen laguntzaile modura hasi zen behar-rean. Berarekin elkarlanean jardun zuen honako moda bildumetan: Gaudí 2005, Novia España 2006, Ego Cibeles 2006, 2007, 2008 eta 2009 eta Cibeles 2009. 2008ko eta 2009ko edizioetan EGO-ko bilduma onenari L'Oreal saria eskuratu zuen. 2008az geroztik bere firma propioarekin dihardu behar-rean: ETXEBERRIA. Firma horrekin Vigoko Pasarelara aurkeztu zen 2008an, Night Calls izeneko bildumarekin, eta han bertan saria jaso zuen, akzesita eman zioten eta; hurrengo urtean Pasarela Vigo 2009an, Dress Code bildumarekin bigarren saria eskuratu zuen eta Creamoda Bilbao 2010 delakoan, berriz, Portraits bildumak lehenengo saria eman zion. Urte berean Fitting Room Bilbao 2010, Diseinatzaile Berriak Madrid 2010 Pasarelan eta Mid-e 2010 San Sebastian izenekoan ere egon zen bere diseinuak ezagutzera ematen. Beraz, Cibelesen jaso berri duen saria aurretik, lehenengo urratsak ematen hasi zenetik pilatzen joan den sari-bilduman hurrengoia izan da. Eta, seguruenik, ez da azkena izango.

baino askoz ere aukera zabalagoa dagoelako. Horrez gain, eta beti ere erabiliko ditudan ehunak eskuan ditudala, irudi eta siluetekin behar-rean hasten naiz. Eta oinarri horrekin, silueten zirriborroak sortzen joaten naiz, zirriborro horien gainean egindako eskema horiek poliki poliki garatzen. Eta horrela, horien gainean egindako al-

daketak eta bestelakoak bitarte, bilduma sortzen eta garatzen joaten da. Adibide bat ipintzearen, ezaugarri amankomun batzuk izango dituzten praktikak sortzen dituzu eta gero aldaketa batzuk sartzen hastean modelo ezberdinak jaiotzen dira. Oinarri modura hartutako praka batzuk bolumen handiagoa duten beste batzuetan bihurtzen ditut, edo luzeagoak diren beste batzuk sortzen ditut... Horiekin guztiarekin bilduma egiten da azkenean.



**- Zuk egindako bilduma hori errealitate-ra ekartzeko orduan, hau da, jantzi guztiak josi eta egin behar-reko beste guztiak egiteko taldeko lanak ere izango du garrantzirik, ezta?**

Hala da, duda barik, eta gainera nirekin batera behar-rean dagoen neska, nire laguntzailea eibartarra da, Miriam Izquierdo. Denbora darama nirekin batera Bartzelonan behar-rean eta oso gustura nago, benetan behar handia eta ona egiten diharduen profesionala da eta ez nuen elkarrizketa hori azpimarratu barik amaitu nahi. Moda mundu honetan jardutea ez da bat ere erraza, besteak beste oso azaleko mundua delako eta bertan, inguruan mugitzen den guztiarekin moldatzea askori kosta egiten zaielako, baina Miriamek oso ondo egiten dihardu eta poliki poliki bere bidea egiten doa, hori bai, beharra gogotik eta ondo eginda. Baina gustu handia dauka eta ez zaio honetan jarduteko motibaziorik falta. Asko balio du eta zorte handia daukat elkar ezagutu eta batera behar-rean jarduteko aukera izatean.



*Aurreko eguenian urteko Batzar Nagusixa egiñ eban ...eta kitto! Euskara Elkartiak Urkizuko bere lokaletan. Alkartiak egindako proposamenak eta aurrekontua onartu ziran aho batez eta, aldaketen artian, presidente karguaren barriztia dago: Igone Lamarainek sei urtetan Juan Barahonak izandako erantzunkizuna hartu dabelako bere gaiñ. Euskeriaren transmisiñuan sakontzia onartiaz gaiñ, Eibarko euskalgintzaren inguruko hausnarketia abiatzia aurreikusi da.*

## Lamarainek Barahonaren presidente kargua hartu dau ...eta kitto!ko Batzar Nagusixan


Azken urteko baloraziñua egitterakuan, "gogortzat" jo zan denboraldixa "krisixaren ondorixoz". Langilleguan izandako bajak eta eszedentzia aittatu ziran: "Daguan langilleguak bete dittu bestien bajak. Ekonomikoki bentajia izan bada be, lan-kargia haundittu egin da azken horientzat".

Berbetan programia indartu egin da aurtan, Gurasoak Berbetan programaren sorrerarekin. Eta azken horretako plan pilotuak egin dira J.A. Mogel eta San Andres ikastetxietan. Sorreren kontuan, hitzaldi-taillerrena be emon da, euskeriaren transmisiñua landu eta indartzeko. Sagardo Egunak be egun osoko programaziñuari eutsi detsa eta indartuta dago. Eta aurrekuaren arrakasta bezain beste dakan paillazuen urteroko programaziñua be biderkatu egin da oinguan: 2009xan ez zirala etorri-eta, Pirritx, Porrotx eta Mari-Motots bittan izan dira gurian 2010ian, bixetan gaiñera lau saio eskinduta.

Diru-laguntzen kontuan, azken urtietatik datorren murrizteko bidia eutsi detse aurtengo diru-laguntza edo subenziñuak, igoera bat edo beste izan bada

be. Holan, Udalak jaitsi egin dau laguntza, nabarmen gaiñera; Berbia Emon programia alde batera lagatzia erabagi eban eta Txikitto! gaztiendako hilla-betekarixa online bakarrik kale-ratzia. Azken hiru zenbakixak, baiña, ikastetxiak erabagi horrekiko erakutsi eben adostasun faltak bultzatuta, paperian kalerau ziran.

Deputaziñuaren subenziñua gitxi baiña zeozer igo da azken urtian, bai rebistiarendako eta baitta alkartiarendako be; dana dala, aldizkarixarendako web-gunerako eta inbersiñuetarako



Alkartiak kalian be izatan dau presentzia.

eskatutakua ez dabe emon. Eta Jaurlaritzaren kasuan, "rebistia-ri diru-laguntza igo badetsa be, nabarmen, Berbia Emon desgertziak alkartiarendako diru gixi-ago egotia ekarri dau".

### 2011rako onartutako proposamena

Aurreko eguenian egindako batzarrian ...eta kitto!-k proposatutakua onartu zan ikasturte barrirako. Proposamenen artian, transmisiñuarenak daka indar berezixa: arlo soziolinguistikuan egin biharreko transmisiño horretan, honezkero martxan

daguzen hitzaldi soziolinguistikuekin jarraitzia erabagi da eta proiektu barri bi gehitu jakoz aurtengo programaziñuari. Lehelengua maiatzian egingo dan mintegixa da, Euskal Herri mailan eta famelixa transmisiñuaren inguruan, eta bigarrena abenduan burutuko dan Gurasoak Berbetan Eguna.


Aldizkarixaren arluan, eta biallarari begira, Debabarrena mailako komunikabide bateratuaren proiektuaren inguruko urrats batzuk emon dira, azkena batzarraren egin eta hurrengo egunian Elgoibarko Izarrak bultzatutako

SARRERAK euruetan		%
Publizidadia .....	192.900	40'50
Mezenazguak (Kutxa, Eroski) .....	7.300	1'53
Bazkidien ekarpina .....	19.015	3'99
Udala (hitzarmena) .....	56.931	11'95
Gipuzkoako Foru Aldundia .....	52.318	10'99
Jaurlaritza .....	81.600	17'13
Jardueren bittartekua .....	66.187	13'90
GUZTIRA .....	476.251	

URTEERAK euruetan		%
Bihargiñak .....	241.580	49'50
Funtzionamendu gastuak .....	50.000	10'24
Jardueren antolatzia .....	55.500	11'37
Inbersiñuak .....	2.500	0'51
Gastu mekanikuak .....	137.275	28'13
Bankuak eta merkatal kobraziñak .....	1.200	0'25
GUZTIRA .....	488.055	

**JUAN BARAHONA, presidente-ohia:**

## “Rebistatik aparte, ...eta kitto! alkartia da bere osotasunian”



**- Zer moduzko esperientzia izan da urteotakua?**

Aberasgarria, asko ikasi dotelako. ...eta kitto!-ko partaidia hasieratik izan naiz, sortu zanetik, eta halakuetan bateren bati tokatu bihar jako kargu bat edo beste izatia. Egin biharrekua da eta holan hartu dot. Pozgarria izan da; baiña hamendik aurrera, bokal moduan, erantzunkizun txikixagua izango dot eta lasaxeago ibilliko naizelakuan nago.

**- Zelan ikusten dozu alkartia herrixan? Bezain beste txertatuta?**

...eta kitto! edozeinek ezagutzen dau Eibarren; ez dago dudarik. Halanda be, herritar askok astero kaleratzen dogun produktuarekin identifikatzen dau: rebistia ixa pankartia bihurtu dogu. Eta hori ez da guztiz zuzena: alkartiak bere gaiñ hartzen daben euskeria indartzeko beste esparru asko kanpuan geratzen diralako. Berbetan programiak eta halakuak ez dake hainbeste oihartzun, eta hori be bada ...eta kitto!

**- 800 bazkide bueltan gagoz. Kopuru txikixa begittantzen jatzu Eibar batentzat?**

Zerekin konparatzen dozun arabera. Ez gagoz txarto. Eibarko Klub Deportibuaren atzetik bazkide gehixen dogun alkartia izango gara akaso; Arrate Kultur Alkartia-eta kopuru txikixaguetan mugitzen dira. Gehixago nahi dogula? Baitta! Millara aillegatzeko kanpaina egin zan, eta lortuko genduan, baiña horretarako benetan enkapritxau egin biharko giñake, vis a vis-a erabili...

**- Zeiñ erronka ikusten dozu gertuko etorkizunian?**

Esku artian euki geinken potentienetakua eskualdeko komunikabidiaren proiektua izan leike, zelan amaittuko dan ez dakigun arren. Baiña aztertu biharrekua da.

proiektua egitteko aurrelanaren diseinuaren aurkezpena, Goiena enpresak egindakua.

Mailla zabalaguan, Topaguneak egindako hausnarketaren barri be emon zan batzarrian. Euskal alkartien Federaziñuak bere norabidiaren hausnarketia egin dau eta 2. fasiaren diseiñuan dihardu oiñ. Bestalde, iazko batzarrian aurkeztu genduan Eibarko euskalgintzaren inguru-

ko hausnarketia egitteko asmo hori (aurretik Topagunearen prozesua ezagutzia erabagi zan orduan) udazkenian diseiñatzia pentsau da, “*lehelengo kontaktuak egittia behintzat*”.

**Igone Lamarain zuzendaritza barriko presidentia**

Juan Barahonak sei urte emon dittu ...eta kitto!-ko presidente eta, azken batzarra apro-

betxatuz, atsedeen pixka bat hartzea erabagi dau. Oiñ arte Zuzendaritzako partaide izan dan Igone Lamarainek hartuko dau bere tokixa, eta Barahona bokal izatera pasatuko da. Iaztik, gaiñera, alkartruke horretatik aparte, aldaketa bakarria izango da Zuzendaritza barrian: Juan Mari Pérezek lagatuko tokixa Ainara Argoitiak hartuko dau. Holan, gaur egungo di-

rektibia honakuok osatzen dabe: Igone Lamarain presidentiak, Moises González presidente-ordiak, Maider Aranberri idazkarixak, Marisol Uriarte diruzaiñak eta hamar lagunek bokalen taldiak: Mireia Agirrebeña, Ana Aranberri, Isabel Arregi, Imanol Bergara, Gaizka Bilbao, Julian Fernández, Fermín Lazkano eta Koldo Mitxelena, lehen aittatutako Argoitia eta Barahonarekin batera.

Bazkide kuotetan urterokuari jarraitu jako eta KPI-ren 2'80ko igoeria onartu eben bazkidiak. Holan 2011rako honakuak jarriko dira indarrarian: 16 urtetik beherakuentzat, 4,41 euro urtian; lanik gabe, ikasle, jubilau eta etxeandrien kasuan, 9'92 euro; eta biharra dakenak 39'06 euro ordainduko dabe. Kuotak maiatzetik aurrera pasatuko dira kobratzera.

Urte honetarako onartutako aurrekontuan 11.800 euroko galerak aurreikusten dira: hori da sarreraren (476.000 euro) eta urteerian (488.000) artian espero dan aldia. Bestalde, autofinanziaziañuak %60ren bueltan jarraitzen dau (%58,48 azken urtian).

**Eskela,  
urteurren meza  
edo eskertzarik  
jarri nahi baduzu**

**...eta kitto! aldizkarian duzu  
aukera (943 20 67 76)**

**ARTOLA**  
*jatetxea*

**ASTEBURUKO  
DEGUSTAZIO MENUA**

*Solomo iberikoaren carpaccio-a  
Etxeko foie-a  
Izokin keztatua eta frijituen entsalada*

**Legatza plantxan**

*Solomilloa plantxan  
edo Karrillera onddoekin*

*Limoi-moussea  
edo Degustazio postrea  
edo Limoi sorbetea cavarekin*

*Urteko ardoa, sagardoa edo beste*

Astelehenetik  
barixakura  
EGUNEKO  
MENUA  
**15 €**

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 € + BEZ**



## Bazkidien Jaixa: bat egitteko aukeria apirillaren 9xan

**D**ATORREN EGUAZTE-  
NIAN, MARTXUAREN  
30-IAN, amaittuko da  
apirillaren 9xan egingo dan  
Bazkidien Jaixan parte har-  
tzeko txartelak erosteko epia.  
Jai horretako 2. ediziñua da  
aurtengua, 2008xan eginda-  
kuari jarraituko detsana eta, or-  
duan moduan, Armerixa Esko-  
lan juntauko gara. **Txartelak  
...eta kitto!-ko buleguetan** da-  
goz salgai: **10 eurotan** helduen  
kasuan eta **5 eurotan umien-  
tzat**. Egun osoko egitaraua  
eguerdiko **12.00xetan** hasiko  
da, ordu horretan eskinduko  
dan **piskolabisarekin, 13.00-a**  
inguruan **talde-argazkixa** eta-  
rako da, ordurako umientzako  
taillarrak eta puzgarrixak fun-  
zionatuko dabe, **14.30xetan**  
**bazkarixa** eskinduko da,  
**16.30xetan** Zurrumurru taldeko  
Txurrimurri eta Morritoston **pai-  
llazuen emanaldixa** hasiko da,  
**17.00etan bingo herrikoia**ren  
ordua izango da (helduak eta  
umiak izango dabe bertan parte  
hartzeko aukeria, *“kartoia gai-  
ñera doan da”*) eta, **17.30xeta-  
tik aurrera, DJ Arno** eibarta-  
rrak girua alaittuko dau euskal  
musika doiñuekin. Hortik kan-  
po, txapelketarik eta halakorik  
ez bada izango be, *“karta-jo-  
kuak aukeran izango dira, nahi  
dabenentzat”*. Bazkarirako pae-

lla erraldoia prestatuko da han  
bertan eta edarixak, postria eta  
kafia be sartzen dira lehen  
esandako prezian.

Txartelak 30erako erosteko  
neurrixa *“paelliak behartuta da-  
tor, hori azken ordurako ezin do-  
gu laga-eta. Zenbat lagunentza-*

*ko gura dogun aurretik jakin  
bihar dabe”*, diñue antolatzaizai-  
lliak. Gipuzkoako kostaldetik,  
Orixotik datoz paella egilliak:  
*“Bertan bizi diran valentzianuak  
dira eta, in situ, zelan presta-  
tzen daben ikusteko aukeria  
izango da”*.

Jai giruan, beraz, aukera poli-  
tta izango dogu hamendik aste  
bira, *“alkarren artian bazkidiok  
garanok hobeto ezagutzeko,  
danok bat egitteko eta indarra  
egitteko. Egun osoko ekitaldixa  
izango da, gaiñera, eta adin  
guztientzakuendako”*.

**JOSEBA BARRUTIA, DJ ARNO:**

**“Euskal giro edarrian  
pasatzeko eguna  
izango da 9xan”**

**- Zenbat urte dira honezkeroko jai-girua alaitzen?**

Aittarekin ezkontzetan-eta hasi nintzala 26 urte dira dagoene-  
ko. Ondo gogoratzen dot 7. maillan nenguala.

**- Urtian zenbat saio eskintzen dittuzu?**

Zuzenian, 35 bat izango dira gitxi gorabehera. Batez be, ez-  
kontzekin jarraitzen dot eta, baita, herriko jaixetan eta erro-  
merixetan be. Gero, pianista be banaiz eta, Argi Laurdenak  
taldiarekin, beste hamar bat saio egitten dittugu urtian.

**- Askokostatzen zaigu dantzan egittia? Edo gizonezkuon  
arazua da bakarrik?**


Egixa da gaur egungua ez dala oiñi hogei urteko giro bera.  
Plaza girua pasau dala esango neuke ixa, tabernak-eta aurria  
hartu deskuela musika komertzialarekin. Baiña badagoz es-  
pazio eta jai batzuk ondo eusten detsenak euskal giroko mus-  
sikari: Arratiak izan leikez hamen. Usurbillen eta Aia inguruan askoz be azeptaziño gehixago da-  
ke -Aiako San Pedron astero ixa dago erromerixia-. Eskualdian, Osintxuren kasua aittatuko neu-  
ke, poliitta da-eta gazte eta nagusixak dantzan ikustia.

**- Askokaldatu da jendiak eskatzen detsuna?**

Aurrian ze jende dakazun kontuan izaten dogu eta asko neurtzen dogu. Halanda be, noizbehinka  
erdrarakada batzuk eta pop inglesa sartuta be, guk geure aldetik euskal abestixen alde egitten do-  
gu: hortan ez izan zalantzarik.

**- Zelan ikusten dozu 9kua? Jendia animatu nahi?**

Jakiña! Goizetik izango gara bertan, gauzak prestatzen eta parte hartzen. Euskal giro edarrian go-  
tatzeko moduan izango gara. Ez galdu aukeria!



# EZTEIEN gehigarria



**25. zenbakia**

*2011ko UDABERRIko gehigarria*

**PUBLIZTATEA: Iztia ALBIZU eta Belen ULAZIA**

**Telefonoa. 943 20 67 76**

**Faxa. 943 20 28 72**

**publizitatea@etakitto.com**



# Amabitxia ere protagonista

**B**eti aipatzen dira emaztegaiak direla eguneko izarrak, begirada guztiak jasotzen dituztenak. Egia da, baina zenbatean entzun dugu senargaiaren jantziak baino amabitxiarenak begiratzen direla gehiago. Senargaiak aldamenen duen emakumeak begirada asko izaten ditu gainean eta horrek andrazko askoaren kirioak dantzan jartzen ditu.

Mila detaile izan ditzake amabitxiaren jantziak, izan ere, pisu handia du eztei egunean egingo den ospakizunean, goizean goizetik hasi eta amaierara arte. Bai amabitxiak, bai senargaiak harrera lan handia egiten dute, bai udaletxe parean egiten bada ezteia, baita eliza parean egiten bada ere. Senargaiak eta amabitxiak jasotzen dituzte,



josu torrealday

beraz, egun horretako lehenengo begiradak.

Baina egon daitezela lasai Eibarko amabitxiak. Aukera handia dute herrian eta denda guztietan izango dira eurei laguntzeko prest. Dakitenen eskutan jartzea da ideia egokiena eta denborarekin, ahal izanez gero, soineko bat baino gehiago probatzea komeni da, beti ere amabitxiak bere burua arrotza ikusi barik.

Azken urteetan hiru piezako jantziak dira nagusi amabitxien artean: gona, manga motzeko gorputza eta txaketa txikia. Aukera handia dago erabiliko diren kolore eta oihaletan, baina aurten arrakasta handia dute satin-ek eta harrirxo edo bisuteria detaileek. Urdina da nagusi eroaten, baita grisa, arrosa eta malba ere.



Senargaiak eta ezkontzako gonbidatuak janzteko




PRESTATUTA GAUDE

ZULOAGATARREN, 1 (EIBAR)

# Valenciaga

Telefona: 943 20 22 33





**ROCA** CALBETON, 16  
-EIBAR-  
TEL. 943 20 80 06

**Ezkontza egunerako guztia...  
...ZURE ESKU!**



EZKONGAI TRAJEETAN ESPEZIALISTAK



**AZPIRI**  
SALMENTA Arragueta, 1-3  
ERAKUSKETA Arikixaneko zubia, 1  
TXANDA HARTZEKO 943 20 74 17

**CARLO PIGNATELLI**  
*Classico*  
2011 kolezioa eksklusiban



ARRAGUETA 9  
TEL. 943 12 71 06

*Ezkontza egunean ezin hobeto jantzita egoten lagunduko dizugu*



**Iritsa**



**laguinda**

ARROPAK eta OSAGARRIAK



San Agustin, 3  
943 20 84 41

EZKONTZA EGUNERAKO LENTZERIA BEREZIA  
BAITA BESTE EGUNETARAKO ERE



**TXUKUNA**  
LENTZERIA MERTZERIA



EULOGIO GARATE, 1 943 821308



# Lorak, naturalak eta xumeak

**E**gipton ere erabiltzen omen zuen emazte-gaiak lore sorta, orduan espiritu txarrak aldenzeko asmoarekin, usain handikoak izaten ziren. Erdi Aroan lore-sortek indarra hartu zuten berriro eta oso tamaina handikoak izaten ziren, lurrera artekoak. Azken urtean lore-sortak kalitatezkoak, oso naturalak eta xumeak izaten dira. Berdea nagusi, hosto askodun fondaoren gainean, kolore bakarreko loreak erabiltzea da ohikoena. Koloreari dago-kionez, zuria, arrosa eta malba dira nagusi.

Lorae-sorta txikiak, baina oso ondo egindakoak, detaile modernoren bat txertatuta, denboraz aukeratutako zerbait da eztei egunean. Denborarekin loradendara joan



eta dauden aukera guztien berri emango digute. Kontuan izan gainera, gaur egun eztei egunean erabiliko ditugun lore guztiak familia berekoak izatea oso ohikoa dela. Emaztegaiak duen detaileren bat bazkaltzeko mahaietan izatea ere modan jarri da. Loradendak dituzten katalogoak anitzak dira, soineko guztiendako aproposak,

gainera lore-sortak egiteko teknikak asko aurreratu dira eta forma guztietakoak egiteko ohitura dago. Hori dela eta, soinekoak duen garrantzia ikusita, emaztegaiak soinekoa aukeratuta duenean, loradendara bisita egitea gomendatzen da, denborarekin dauden aukera guztiak zehatz aztertzeke aukera izan-go baitu.

**F. PASCUAL** Arane, 6  
Telf. 943 20 61 64  
Faxa. 943 20 85 43  
20600 EIBAR

**VIRGINIA PASCUAL**  
Zubiaurre, 36 (behea)  
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28  
www.cocinaspascual.com  
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK  
BARNERAKO



**EZKONTZA** tartak  
eta  
despedidetarako  
(ENKARGUZ)

**ANTXON**  
DEGUSTAZIOA

-T. ETXEBARRIA, 13-  
Tel. 943 20 63 22  
-ARRAGUETA, 14-  
Tel. 943 56 85 43



Bidebarrieta, 28 943 20 79 73

San  
Andres  
gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu



**Izadi**

San Juan, 1



Tel. 943 20 33 29

Bidebarrieta, 1

**Laumar**




Tel. 943 20 16 26

Birjiñape, 1 Isasi, 16

**LORA DENDA**

**Larrea**


943 20 88 47






# KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4  
279 Postakutxa  
20600 EIBAR  
943 121 262  
943 127 334



*Edozein  
ospakizunetarako  
aukera*



[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com)

**EZKONTZAK  
BATAIOAK  
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO  
SANTUTEGIAREN  
ondoan gaude

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,  
zilarrezko ezteiak, urrezko ezteiak,  
karta, enpresa bazkariak...



RESTAURANTE KANTABRIA  
KANTABRIA JATETXEA



## Banketea, eguneko erregea

**E**uskal Herriko ohitura ei da notizi on guztiak mahaiaren bueltan ospatzea. Negozio-bilera on bat ere, bazkari on batekin amaitu behar dela esaten da. Ez da harrizkoa, beraz, eztei egunean bazkari edo afariari ematen diogun garrantzia. Are gehiago, eztei eguna aukeratzeko orduan, asko eta asko dira jatetxearen araberakoa izatea, hau da, nahi dugun jatetxeak noiz duen lekua, orduan egingo dugu ospakizuna.

Gonbidatu guztiek goitik behera aztertuko dute aukeratutako menua eta denbora asko emango dute koktelean zegoen jakiari buruz, okelaren samurtasunari buruz edo postreak zuen itxurari buruz berbetan.

Hori guztia euskaldun denok dakigu eta horregatik ematen dugu denbora asko horren gainean berbetan eztei eguna prestatzen dihardugun bitartean. Gertuko familiak eta lagunek ere izaten dute jakien berri. Hori guztia ikusita, jatetxeak egiten dituzten eskaintzak gero eta anitzagoak eta pertsonalizatuagoak izaten dira.

Koktela, bazkaria eta afaria edo birrafaria jarri dira modan azken aldiaren. Eguerdian sartu eta gauera arte berbetan, jaten eta dantzan emango dugu. Koktelak harrera egiteko aukera ezinhobea ematen du, gainera, jatetxeak horretarako leku egokia izanez gero, ezkonberriekin argazkiak egiteko ere aprobetxatzen da. Mokadutxo txikiak behin mahaiari



jarritakoarekin zer ikusi handia izaten du. Menu tradizionalak koktel tradizionalagoa izaten du orokorrean, menuan arriskatzeko ohitura duenak berriz, mokadutxo bereziak ere eskatzen ditu.

Bapo bazkalduta, DJ edo musika taldeak alaituko du eta dantza asko egiten

da eztei egunean. Musika senargaiek aukeratzeko ohitura zabaldu da, klasikagoa, modernoagoa, era guztietako musika batzen da eta horrek janariarekin ohitura berria sortu du: afari edo birrafaria. Beste mokadutxo bat, kalera irteten eta azkeneko jaia hasi aurretik.

**Loiola auzoa, 24 AZPEITIA**  
**JATETXEA**  
Telefona: 943 81 56 08 Faxa: 943 15 03 62  
E-maila: [kiruri@wanadoo.es](mailto:kiruri@wanadoo.es)

**Argazki Insofestudio**  
www.torrealday.com

**GADIFOT**  
www.gadifot.es

**ARGAZKILARITZA - BIDEOA**  
Iñaki Galparsoro  
Komentukoa, z/g Tinoa. 943 17 06 71 -ERMUA-

Ezteiak





Kanpoko  
estetika  
guztiz  
berriztua



Dantza  
terrazan  
berandu  
arte



Tel.  
943 202 727  
Faxa.  
943 208 991  
Arrate auzoa, z/g -EIBAR-



**HOTELA  
JATETXEA**  
*Kretzelin*

E-maila: [conecta@hotelkretzelin.com](mailto:conecta@hotelkretzelin.com)

[www.hotelkretzelin.com](http://www.hotelkretzelin.com)




## Norberarendako tratamendua

**E**stetika tratamendua denborarekin hartzeko ohitura dago gaur egun, ezte egunean lasai egoteko, azala behar den moduan izateko. Estetika tratamenduek egunerokotasunean bere lekua lortu dute eta ondorioz, ezte egunaren bueltan ere garrantzia irabazi dute.

Aurpegirako tratamenduak dira ezte egunerako garrantzitsuenak eta norberaren azal eta aurpegiaren araberakoak izaten dira, hau da, guztiz pertsonalizatuak. Azala behar den moduan aztertu eta zer egin erabaki behar da. Gorputzerako, berriz, peeling-ak eta ileendako laserrak dira tratamendu ohikoena.

Gaur egun makillajearendako azala denborarekin prestatzen



da. Makillajea aukeratuta izango dugu eta jakingo dugu azalean zer egin. Horretarako ditugu profesionalak eta euren eskuek jakingo dute inork baino hobeto zer egin. Kontuan izan gizonezkoek ere gero eta gehiago jasotzen dutela makillaje pixka bat eta emakumeekin gertatzen den moduan, gizonezkoen azalak ere prestakuntza eskatzen duela.

Denbora kontua izaten da gehien bat, ezin da azkeneko unerako laga eta profesionala hilabete batzuk lehenago bisitatzea da egokiena. Tratamenduak ezte egunaren bueltan egingo dira gehien bat, baina tartean depilazio laserra egitea erabakiz gero, adibidez, horrek denbora eskatuko du, beraz, bisitatu estetika zentroa denborarekin.

Bidebarrieta, 20 (Galeria Komertziala) **GIZONEZKOEN ILEAPAINDEGIA**

- Punta-puntako orrazkerak
- Ile tratamenduak

ORDUA HARTZEKO:  
Tel. 943 20 16 48

Orrazketa eta makillaje  
2 probekin beste **MAKILLAJE BAT DOAN**

**PELUQUERIA ENREZ**  
MISTOA

Juan Gisasola, 6  
943 20 64 42

**Dido laserrarekin**

**CASTAÑO**

943 207047  
Calbeton, 1  
1. solairua

**Ekongai eta gonbidatuetan adituak**

Ifar kale, 6  
943 702024

**iboga**  
ESTILISTAK

styling  
touch  
therapy

**DOLLS**

943 033 967  
J. Etxeberria, 5 - behea

**KERALA**  
 EDERTASUN  
 ETA  
 LASAITZE  
 TRATAMENDUAK

Clotilde pasalekua 11,  
 SOLAIRIARTE  
 943 53 05 25  
 www.estelikakerala.es

ORGANIZAZIAREN KOSMETIKA NATURALA, MAKILAJA  
 FOTODEPILAZIOA, FOTOTERAPIAK, MANIKURA, PEDIKURA

Zezenbide, 4 www.lakett.com 943 53 00 66

**Lakett**  
 ESTETIKA MASAJE

ORDUTEGI  
 JARRAITUA: 09.00- 19.00.  
 ZAPATUETAN: 09.00- 13.00

ESTETIKA  
 MASAJEA

*Halako egun hain bereziko  
 prestatu egizu zure azala  
 gure tratamendu onenekin*

- Aurpegi eta Gorputz Tratamenduak
- Denbora luzerako Manikura eta Pedikura. BERRITASUNA!!!
- Masajeak
- Opari Bonoak
- Mikropigmentazioa (Personal aditua)
- etb.

**CAPI**  
 Bidebarrieta, 5 943 201 547

**Laser fotodepilazioa**

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra / bularra + abdomena	120 €

**3x2**

- AURPEGI TRATAMENDUAK	- MASAJEAK
- MIKROPIGMENTAZIOA	- BETILE LUZAPENAK
- AUTOBRONTZEADOREA	- MAKILLAJEAK
- SOLARIUMAK	- GEL ATZAZKALAK

**Tratamendu lipo-erreduktorea**  
 5 saioekin  
 30 minutuko masajea edo erreflexologia OPARI

**BERRIA**  
 saio bat

BEGIBISTAKO  
 EMAITZEKIN  
 LEHENENGO  
 SAIOETIK

**5€** -ko deskontua tratamenduetan bazkide bazara

**adhara**  
 Berreskuratu zure onena

Garrantzitsuena zu zeu zarelako...  
 Adhara Zentroan zerbitzu berria jartzen dizugu eskura

**Gorputz eta Aurpegi Spa Tratamenduak**

**AURPEGIRAKO SPA**  
 ZITRIKO-ANTIAGINGA - KAKAOTERAPIA - BULGARIAKO LAPROSA  
 ARDOTERAPIA - POLTSAK ETA BEGI INGURUNEA - KI SAKU-FLORAL MASSAGE AURPEGI PINDAK

**GORPUTZERAKO SPA**  
 ITSAS DESINTOXIKATZALE ETA SUPERHIDRATATZALEA - ZELULITISAREN AURKAKO TE BERDEA  
 TE BERDEA PINDEKIN - ZITRIKO-ANTIAGINGA - GORPUTZ ARDOTERAPIA - ZIRKULAZIO-ARDOTERAPIA  
 KAKAOTERAPIA - BULGARIAKO LAPROSA - LASATASUNA PINDEKIN  
 GARONDO-BIZKARRERAKO KONTRAKTUREN AURKAKOIA - AYURVEDA MASAJEA

Hitzordua eskatu eta bere onurak egiaztatu  
 Opari-baleak ere baditugu opari berezi eta desberdina egin nahi izanez gero

Elgeta kale, 2 AC · 20600 Eibar · Gipuzkoa · Telo: 943 84 91 69 / 19 · E-mail: adharazentroa@hotmail.com  
 www.adharazentroa.com




## Gonbidapenak, gero eta ausartagoak

**J**antzietan, bazkarian, lore-sortetan, behin baino gehiagotan entzuten dugu gero eta modernoagoak izateko aukera dagoela, baina egia da eztei eguna nahikoa tradizionala eta klasikoa izaten dela orokorrean. Hala ere, modernotasunak esparru bat guztiz jan du, gonbidapenarena eta oparixoarena.

Azken aldiak kolore ilunek gero eta pisu handiagoa dute gonbidapenetan, jendeak ohiko zuria edo krema alde batera laga eta koloretsuak edo oso ilunak diren gonbidapenak aukeratzen ditu. Diseinu ausartak, kalitate desberdinetako paperak, oihalak ere barne, oso modernoak izaten dira gonbidapenak.

Eta oparixoei dagokienez, ez bakarrik modernoak, be-



gadifot

reziak eta originalak izatea nahi izaten da. Diru-zorroak, giltzetakoak, kafea hartzeko edalontziak, loteria, era guztietako opariak aurkitu ditezke gaur egun eztei eguneko bazkarian. Hori bai, ahal izanez gero, oso handiak ez

izatea nahi izaten dute ezkondu berriek, gero gizonetakoak patrikan edo emakumetakoak poltsa txikitian gordetzeko aukera izan dezaten.

Aukera hain zabala izanda, beti ere profesionalen eskutan jartzea izaten da

onena, baita ingurukoekin berba egin eta zer egingo luketen galdetzea ere. Gero eta gehiagoren artean pentsatu, orduan eta originalagoa, baina, lasai, ziu merkatuan badagoela zuri bururatu zaizun hori.

**San Agustín, 4** **943 20 16 47**  
**MENAJEAKRISTALAOPIARIAK**

**Jauregui**  
OPARIETARAKO IDEAK

**fasprint**  
**Inprimategia**

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es  
Ego Gain 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

T. Etxebarria, 24 20600 EIBAR  
Tel. 943 20 73 04

**MARRODAN**  
BITXITEGIA - ERLOJUDENDA


Japongo Fukushima zentral nuklearrarekin gertaturikua ikusita, barriro mahairatu da energixa nuklearraren gaixa. Aldekuak eta kontrakuak euren ahotsak kaleratu dittue azken aldixan, zentralak eskintzen dabon segurtasuna, bestelako energixen posibilidadia, konpatibilidadiak eta preziuak eztabaidatzeko.

## Zentral nuklearren isurixak kezkatzen zaittu? Prestauta gagoz?



**J. CARLOS LARREATEGI**  
77 urte  
jubilaua

Hamen be pasau leike: inguruan badagoz zentralak. Pasauko baltz, ez neuke jakingo zer egiñ... ez deskue pautarik emoten. Halanda be, energixa barriztagarriren aldekoa naiz: eoliko gehixago bihar dittugu. Nafarruan 2013-rako barriztagarrixarekin bakarrik moldatzeko asmua dake.



**MARI CRUZ ETXEBARRIA**  
53 urte  
zaintzailia

Egixa esanda, ez dakitt hamen be pasau leiken. Garoña be hamen aldamenian izanda, arriskua hortxe dogu... Informaziño falta haundixa dogula begittantzen jata, zeñiek daki zer egin bihar dan zerbait gertatu ezker? Herritarrok informaziño argixagua izan biharko genduke.


**IBAN OÑEDERRA**  
35 urte  
arotza

Hamen be pasau leike, Garoña oso hurbil dakagu-eta. Ez neuke jakingo zer egiñ; ez dot pentsatzen prestatuta gagozenik. Informaziño gehixago bihar dogula esango neuke.



**MILA MAKAZAGA**  
77 urte  
etxeoandria

Garoñakua dakagu; zergaittik ez da pasauko? Inguruko jendia zentralaz bizi da eta euren dako kentzia biharrik gabe gelditzia da, baiña energia eolikua edo eguzki energixaren alde egin biharko genduke. Informaziñorik ez dakagu, igual nahitta, akaso egixa jakinda beldurtu egingo giñatekeelako.





# ESTUDIOS ARRILLAGA

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK**



**Arragueta, 12 EIBAR**  
Tel. 943 20 06 98

**LOKALAK  
ETXEBIZITZAK**



**ELGOIBAR Errosario, 15**  
Tel. 943 74 40 19

EGOITZA NAGUSIA  
Bilbarrizeta 20 - behea, eskuna

## M FUNERARIA MUGICA

**Tanatorio Crematorio del  
Bajo y Alto Deba**

**Tanatorioa eta Errousketa labea**

Egoiberran (Signo poligonar)

Partikalar, natua eta arguri anezki zerbitzuak

Korok - Eskelak - Urturranako eskelak

Euskal Herri osoko ospitaleen hartzen zerbitzu

Nazioa eta Nazioarteko Itzaldok



**Mugica  
Ehorzketa**

Errousketa labea

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

TEEN-  
AJEA

Monica eta Sandra Sanchez Fernandez, bikiak izateaz gain, antzeko gustuak dituzte hainbat gauzatan. Korietakoa bat da literaturarekiko gertutasuna eta, Narruzko Zezen-eko azken edizioan lanetan, lehenengo sariak lortu dituzte monologoaren arloan. Monicak irabazi egin zuen "La okupa y yo"-rekin eta Sandra bigarren sailkatu zen "Las maquinas" lanarekin.

**MONICA eta SANDRA SÁNCHEZ:**

## “Idaztea eta antzerkia: biak ditugu gogoko”

**- Irabazi dituzuen lehenengo sariak izan dira edo ohituta zaudete lehiaketetara?**

Aurretik ere saritu digute: esaterako, San Andresen geundenean, ipuin batzurekin. Ipurterre lehiaketa ere irabazi dugu, batek urte batean eta besteak beste batean. Narruzko Zezen ere aurretik irabazita dugu, Sara Blancorekin hiruron artean egindako lanarekin.

**- Ez da izan ezustekorik orduan... Espero zenuten, ezta?**

Bada ez. Itzian, gelan aurretik irakurri genituenean, iruditu zitzaigun klaseko beste batzuenak hobek zirela. Ezustea izan da, benetan!

**- Zer kontatzen duzue saritutako monologoetan?**

"La okupa y yo" izenburukoan biok gure amaren sabelean gaudela kontatzen dut. Eta "Las máquinas"-en garbigailua, telebista... dira protagonista.

**- Bestela, lan hauetatik kanpo, asko idaztekoak zarete?**

Ez pentsa, ez da hainbestera! Noizbehinka egiten duguna da. (Hala ere, Monicak aitortzen digu egunero idazten duela bere egunkarian)

**- Horrela idazteko, irakurtzera ere ohituta egongo zarete. Zer duzue gustokoan?**

Misteriozko eta intrigazkoak. Eleberriak, poesia baino nahiago. Francisco Mocchiaren "Tres metros sobre el cielo" eta Blanca Alvarezen "El curso en que me enamoré de ti" dira orain arte gehien bete gaituztenak. Hortik aparte, Interneten ere asko ikasi dugu.

**- Antzerkia egin duzue? Gustatuko litzaizueke?**

San Andresen "La casa de Bernarda Alba" antzeztu genuen eta "Alicia en el país de las maravillas" iaz. (Monicak aktore izatea nahi du txikitatik; Sandrak kazetaria, jendea elkarriketatzeke)

**- Itzian 4. maila amaitu eta unibertsitatera bidean zaudete. Zer aukeratu duzue?**

**MONICA:** "Humanistikoa" bidetik jo eta gero ikusiko dut zer aukeratzeko dudanean.

**SANDRA:** Nik argi daukat Kazetari-tza egingo dudala.

**- Irabazitako dirua zertan gastatzeko asmoa duzue?**

Bion artean banatu dugu eta Aste Santu inguruan Lanzarotera egingo dugun ikasketa-bidaiarako izango da.

**publi resa**

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

etxolajatetxea@hotmail.com

Erreserbak: 943-207019

Txirio kale, 1

**etxola**  
**JATETXEA**

Eguneko menua / Karta / Pintxoak  
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak



## ProiektEIBAR Sariak banatu dituzte Ingeniaritza Eskolan

Hilaren 12an atek irekitzeko jardunaldia hartu zuen Eibarko Ingeniaritza Eskolak eta, horrekin batera, Zientzia eta Teknologiaren IV. Azoka ere egiteko baliatu zuten ekitaldia. Jardunaldia aprobetxatuta bertaratu zirenek ikastetxea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten eta, horrez gain, Ingeniaritzan ematen hasiko diren gradu-titulazio berrien inguruko informazioa zuzenean eman zieten. Zentruan eskainiko dituzten titulazio berriek hainbat esparru ikutzen dituzte (Elektronika Industriala eta Automatikoa, Mekanikoa eta Energia Berriztagarriak dira ikasketa-eskaintzari gehitutakoak). Energia Berriztagarrien ingurukoak, gainera, ikasketa berri horrekin interesatutako jende asko erakarri zuela azaldu dute arduradunek.

Eta jardunaldia agurtu aurretik, Batxilergo eta Heziketa Zikloetako ikasleentzat antolatutako ProiektEIBAR proiektu zientifiko-teknologikoen lehiaketaren laugarren

edizioko sariak banatu zizkieten irabazleei. Eskolak antolatutako lehiaketak EHU-ren laguntza dauka eta sari-banaketa ekitaldian Cristina Uriarte Gipuzkoako Campuseko Errektoreordeak hartu zuen parte. Batxilergoko ikasleei eskainitako atalean lehenengo saria David Diez Gil, Elena Folgoso Lozano eta David Sevilla Marrón, Gasteizko Jesus

Obrero Institutu Politeknikoko ikasleek eraman zuten, zerrautsetik abiatuta bio-oila lortzeko proiektuari esker. Eta Heziketa Zikloi eskainitako atalean, epaimahaiko ki-deek irabazlea aukeratzen nahikoa beharra izan zutela azpimarratu zuten, lehiaketara aurkeztutako proiektuen maila handiengatik. Lehenengo saria "ex aequo"



Errenteriako Don Bosco ikastetxeko Lurdes Pagadizabal eta Karnele Hidalgoren "Mezua airean" izenburuko proiektuak eta Félix Machín Rodríguez-en elektrizitatea banatzekoak eskuratu zuten. Inplikazio mailarik altuena duen ikastetxeari ematen duten saria ere azken ikastetxe horrentzat izan zen.

## Gazte Txartelak etapa berriari ekin dio


Orain dela egun batzuk eman dute ezagutzera Gazte Txartel berria, "European Youth Card" delakoa: orain arte ezagutu dugun txartela ordezkatzera datorren hau goitik behera aldatu da eta hiru euskal kutxetako edozeinetan (BBK, Kutxa eta Vital Kutxan) eskuratu daiteke edo, nahiago izanez gero, Gazteaukeraren interneteko atarian ([www.gazteaukera.euskadi.net](http://www.gazteaukera.euskadi.net)) ere eska daiteke.

Euskadiko gazte guztien erreferentziarako txartela izateko helburuari jarraituta, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak titularren kopuruak gora egitea bilatzen du eta, horregatik, abantailak gehitu dizkiote txartelari, proposamena are erakargarriagoa bilakatu nahian. Besteak

beste, entitate kolaboratzaileen sarea handitu eta deskontu berriak lortu dituzte. Gainera, "Gazte Txartela-European Youth Card" txartelaren inguruan komunitatea sortzeko aukera ere badago, sare sozialak erabilia.

Aurreko txartelaren moduan, hau ere European homologatuta dagoen Euskadiko txartel bakarra da eta European Youth Card Association (EYCA) elkartearen barruan dago. Horri esker, EAEn eta estatuko autonomia-erkidegoetako gazte-txartelek eta EYCAri atxikita dauden Europako 38 herrialdeetako txartelek ematen dituzten abantailak ere eskaintzen ditu txartel berriak. Martxoaren 1az gozotik indarrean dagoen txartelak 5 euroko kostua du eta 2015eko otsailaren 28ra arte erabili ahal izango da.

## Arte Batxilergo ikasleak Alfa Arten bisitan




Aurreko barixakuan, hilaren 18an Cangas de Morrazo-ko (Pontevedra) Maria de Soliño institutuko Arte Batxilergoko 17 ikasle, irakasle bik lagunduta, Ignazio Zuloaga institutuan bisitan izan ziren, batxilergoaren arlo horren inguruko esperientzia konpartitzeko asmoz. Galiziako ikasleen bisita aprobetxatuta, gainera, ikastetxe bietako ikasle eta irakasleek Alfa Artera irteera egin zuten elkarrekin. Ignazio Zuloagako irakasleek azaldukoari jarraituz, "ekitaldi honekin ondo gozatu ondoren, elkar agurtu genuen, hori bai, eurek egingadako bisita bueltatzeko asmoa badugula azalduta".



## Hamar puntuko aldeari eutsi beharko diote Hierros Anetxeok

**GARAIPEN ESANGURATSUA LORTU ZUEN EIBAR HIERROS ANETXEK DOMEKAN UNBEN A** Coruñaiko Craten aurrean. Kanporaketa erabakita lagatzeko moduko nagusitasuna erakutsi zuten Isasa-




ren mutilek, baina azken metroetan larregi ez asmatzeak ez du argitzen zeinek egingo duen aurrera. Hamar puntuko aldea (13-3) nahikoa izan daiteke, baina kanporaketa nahiko zabalik geratu da egun batetik bestera gauzak aldatu daitezkeelako. Atsedendaldiko 10-0kari horren osteko 3nako berdinetak jarraitu zion, kanpotarren drop bati eta Gaizka Arrizabalagak gauzatutako zigor kolpearri esker. Domekan A Coruñaian jokatuko dute eibartarrek itzulerako partidua, 12.00etan hasita; partidu horretarako, lau baja ditu taldeak eta beste bi taldera bueltatuko dira.

## Jaialdi bikaina domekan Astelenan

**PILOTA PROFESIONALEKO BINAKAKO TXAPELKETAKO** azken faseko jardunaldi berri baten aurrean gaude eta Astelenak lehenengo jardunaldiko bikote irabazle bien arteko lehia hartuko du: horrela, Martínez de Irujok eta Merino II.ak osatutako bikotea eta Xalax eta Barriolak osatutakoa finalerako txartelaren bila abiatuko dira jaialdiko partidu nagusian. Aurretik, baina, pilotari bikainak

izango ditugu jaialdia hasteko: Titin III.ak (errioxarrak aspalditik ez du jokatzen lehenengo partidua) eta Merino I.ak Aritz Lasa eta Beroizi egingo diete aurre. Eta, jaialdia amaitzeko, Gorka-Larrinaga eta Jaunarena-Arruti bikoteek jardungo dute, nor baino nor.



## Haur eta gurasoen irteera Arrabara

**DEPORTIBOKO MENDI TALDEAK ANTO-LATUTA, ARRABAN IZAN ZEN ASTEBURUAN 71 HAUR ETA GURASOEN TALDEA.** Ibilaldi polita egin zuten, hiru mendigain zapalduz: Arabatxa (1.158 m.), Artalarra (1.163) eta Gatzarrieta (1.183); hori eginda, Arrabako aterpetxean hamarretakoa egiteko aukera izan zuten. Gehienak Eibarrera bueltatu baziren ere handik, 24 laguneko taldeak (14 guraso eta 10 haur) Egiriñaoko aterpetxean egin zuten lo. Zergatik? Hurrengo egunean Gorbeia (1.481 m.) egiteko! 4 eta 5 urteko haurrekin gainera: mendizaletasunak badu etorkizunik!




Wu-Shuko Euskadiko selekzioak 13 domina lortu zituen Espainiako txapelketan.

## Urrezko, zilarrezko eta brontzezko bina Espainiako wu-shukoan

**TTATT GIMNASIOKO ORDEZKARIEK SEI DOMINA ESKURATU DITUZTE MADRILGO** Villaviciosa de Odónen jokatutako wu-shu ekialdeko borroka motako Espainiako txapelketan. Ramon Quina wu-shuko Espainiako zuzendariak prestatzen dituen sei atleta joan ziren Eibartik txapelketa horretara eta euren artean banatu zituzten aipatutako dominak: urrezkoa sandan irabazi zuen Miren Vidalek eta 70 kilora ar-

teko borroka modalitatean Mikel Astigarragak; zilarrezkoa Kepa Loresentzat izan zen 70 kilora artekoan eta Erick Lópezentzat 70 kilotik gorakoan; eta brontzezkoa Kevin Birberg-ek lortu zuen azken horretan eta Unai Fernándezek sandan. Guztira 13 domina eskuratu zuen Euskadiko selekzioak: beste bost domina eskuratu zuten Loreako (Beasain) ordezkariak eta bi Indarraoeko (Tolosa).



## Eskolarteko ibilaldi neurtua Soraluzen

**MARTXOAREN 13-AN GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOAK ANTOLATUTAKO** Eskolarteko XXIV. ibilaldi neur-tuen jardunaldia egin zen Soraluzen; han izan ziren Deba bailarako 258 neska-mutil, 17 ikastetxetako ordezkari, beste 95 parte-hartzaileekin. Probintzian guztira 2.312 parte-hartzaile izan ziren, bost eskualdetan banatuta: Goierrin 565, Bidasoa-Oiartzunen 506, Donostia-Kostaldean 498 eta Urola Kostan 390.



Urkizun osatutako podiuma. / MAIALEN BELAUSTEGI

## Aldanondo garaile Abascal-en

**DOMEKA GOIZEAN JOKATUTAKO ABASCAL SARIAN** Inoxcra taldeko Patxi Aldanondo 1. urteko kadetea izan zen garaile eta bere taldeko Ander

Alonsok eta Ahetze Arratibekek osatu zuten podiuma. Debabarreneko ordezkari onena, bestalde, Ciclos Iturriaga taldeko Andoni López izan zen.

## Bihurrik marka egin zuen Berrizen



**3.029 AIZKORAKADA EMAN ZITUEN ERNESTO EZPELETAK** aurreko zapatuan esku bakarrarekin hiru metroko perimetroko enborra mozteko, ordubete 38 minutu eta 39 segundotan. Jon Kortina eta Agite izan zituen laguntzaile lan horretan, baina beste erronka batzuetan baino hobeto amaitu zuen. *“Ondo eutsi nioan gorputzari eta, lan gogorra izanda ere, ondo amaitu nian”,* dio aizkolariak. Hori horrela, ez du baztertzeko marka berri bati ekitea, aste honetan atseden hartzea badagokio ere.

## Deporreko eskiatzaileak Candanchún

**GARAILE GAINERA. BATEK ESATEN ZUEN MODUAN, JOAN IRABAZI ETA BUELTATU:** hori egin zuten aurreko asteburuan Eibarko Klub Deportiboko ordezkariak, batez ere nesken mailan. Infantil I kategorian, Jones Sáez, Miren Hazas, Maitane Fariñas, Maitte Elorza eta Eider Maiztegi lehenengo bost postuen jabe egin ziren, hurrenez hurren. Infantil II-ko proban, Olaia Sarasola izan zen nagusi eta seniorretan, bestalde, Naia Carballorentzat izan zen garaipena. Odei Jainagak 5. postuan amaitu zuen infantil I mailako lasterketa. Batzuk zein besteek, eskatinean 5 kilometroko distantziari egin behar izan zioten aurre.



## Izagirre igerilariak brontzezko domina eskuratu zuen Espainiakoetan

**SASOI BETE-BETEAN DAGO URBAT-URKOTRONIK-EKO ANDER IZAGIRRE IGERILARIA** eta, asteburuan Sabadellen jokatuako infantil mailako Espainiako txapelketetan, 3. postua eskuratu zuen 50 metro libreetan. Berarekin debutatu zuen ere horrelako txapelketa batean Xabier Oruesagasti taldekideak.


Euskal Herriko txapelketak ere jokoan izan dira azken asteburuan, junior, promesa eta absolutu mailetan. Eibarko igerilari guztiak bikain lehiatu badira ere, Nora Varelak historia egin zuen: junior zein absolutuetan 200 metro brazako erregina izateaz gain, 1987tik indarrean zegoen Gipuzkoako marka hobetu zuen. Horrez gain, junior onena izan zen 100 metro bizkarrean eta 400 metro libretan. Markel Alberdi ez zen atzean geratu eta promesa onena izan zen 50, 100 eta 200 metro libreko probetan eta baita tximeleta erako 50ekoan ere. Biak, gainera, erreleboetan ere nagusi izan ziren: Alberdi Barduliakoekin eta Varela Fortunarekin. Ander Romarate bizkar erako 50ekoan nagusitu zen eta lan ona egin zuten Martin Aizpirik, Nekane Tejedorrek, Aitzol Arrillagak eta Maria Ezenarrok ere.



Nora Varelak bikain jardun du Euskal Herriko txapelketetan.

## Eibar - Real Unión bihar 16.00etan

**HERENEGUNGO EMANALDIAREN ONDOREN, ETB-KO KAMARAK BERRIRO IZANGO DIRA BIHAR IPURUAN,** oraingoan 2. B mailako Irungo Real Unión-en aurkako partidua eskaintzeko, ohikoa denez, arratsaldeko 16.00-etatik aurrera. Manix-en mutilak lidergoan daude, baina aste batetik bestera lider berria izan dugu azken asteotan eta irabazteak balio bikoitza izango luke, jakinda irundarrak aurkari zuzena direla. Alavésen azken porrotaren ondoren, gainera, Pousoren Mirandés da indartsu datorrena: 2. postuan daude, eibartarrendatik puntu bira.



Sutil Eibarko jokalaria izandakoa Ipuruan izan zen herenegun Realarekin.

## Kalamuako hirukotea 190 judoken artean



**EIBAR HIRIA EMAKUMENEN JUDO ARLOKO NAZIOARTEKO TORNEOAN** Nekane Muguruzak urrea lortu zuen kadeteetan eta infantiletan, Berta Alonsok zilarrezkoa eta brontzezkoa eta Itziar Hernándezek brontzezko bana. Maila bikaina erakutsi zuten eibartarrek beste 190 judoken artean.



## Alfa Arte sorkuntzarako lantegi

**ALFA ARTE 'SORKUNTZA LANTEGI ESPERIMENTALA' PROIEKTUA AURKEZTU ZUTEN** barixakuan Alfa Arten Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuak, Miguel de los Toyos alkateak eta Jose Mari Armentia Alfa Arteko kudeatzaileak. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren Sorkuntza Lantegien Programaren barruan kokatu behar da eta, horren arabera, 840 metro karratuko espazioa artisten sorkuntza bultzatzeko proiektua garatzeko egokitu dute honezgero. *"Industriaren esperientzia eta baliabideak artistaren zerbitzura ipintzeko"* Alfa Arteren filosofiari jarraituta, Alfa Artek bildutako esperientzia artista berriekin elkarlanean ipini nahi dituzte. Urgellen berbetan, *"orain arte gure kultura eredia dela eta nagusiki exhibizioari begiratu diogu eta ez gara horrenbeste kezkatu sortzaileen premiekin"*. Horri buelta eman nahi diote, artistei euren lana garatu ahal izateko behar dituzten baliabide eta bestelako laguntzak eskainita.

## Rock Privado, gaur Koskorren

**GAUR GAUEAN, 23.00-ETATIK AURRERA KOSKOR TABERNAN KONZERTUA ESKAINTZEN EGONGO DA DONOSTIAKO ROCK PRIVADO** ([www.rockprivado.com](http://www.rockprivado.com)) taldea. Pop-rock estiloko musika egiten duen taldeko kideak German (ahotsa, gitarra), Adriana (ahotsa), Johnny (gitarra), Iñigo (teklatuak), Victor (bajua) eta Andoni (bateria) dira eta 2008an eman zuten argitara lehenengo diskoa: "En todo este tiempo". Gaurko emanaldian, berriz, taldeak berak iazko irailean ekoiztutako bigarren lana, 12 abestiz osatutako "Caras" diskoa aurkeztuko dute. Sarrera doan izango da.



## Cielitoren kontzertu berezia domekan

**DOMEKAN, 12.30-ETAN CIELITO MUSIKA BANDAREN KONZERTUA HARTUKO DU COLISEO ANTZOKIAK.** Carlos Sánchez Barbak beharrezan Iñaki Orbegozok zuzenduko duen emanaldirako honako egitaraua prestatu dute: "El abanico" (A. Javaloyes, pasodoblea), "Katuska" (P. Sorozabal, zarzuela), "Folk

song suite" (R.V. Williams, suite), "En un mercado persa" (A.W. Ketèlbey, intermedioa) eta "Oregon" (Jacob de Haan, fantasia). Bestalde, Asier Rodríguez 13 urteko gaztearentzat jendeaurreko aurkezpeneko kontzertua izango da domekako, orduan joko duelako estreinekoz Cielito Musika Bandarekin.

## "Kantu kantari kanta" liburuxka eskuragarri

**UDALAK, KUTXAK BABESTUTA, IAZKO EUSKARAREN EGUNERAKO KALERATUTAKO** "Kantu kantari kanta" liburuxka musutruk eskuratzeko aukera eskaintzen dihardu Udalak. Interesa duen edonork euskera@eibar.net helbidera idatzi dezake, jaso nahi dituen ale kopurua azalduta. Liburuxkak lagunartean abesteko moduko 21 euskal kantu ezagun biltzen ditu.



## Txirrindularitzaren 85 urte Portalean: 1.300 argazkitik gora

**AURREKO ASTEBURUAN INAUGURATU ZUTEN EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEKOEK PORTALEAN GURE HERRIKO TXIRRINDULARITZAREN 85 URTEKO HISTORIARI ERREPASO** ederra ematen dion erakusketa, erakustoki bitan banatuta: zati bat eraikinaren 5. pisuan dago, Armagintzaren Museoa eta bestea, berriz, bigarrenean, erakusketa aretoan. Taldea eratu zela 85 urte betetzen direla ospatzeko antolatutako erakusketarako Eibarko txirrindularitzarekin zerikusia duen material ugari batzea lortu dute antolatzaileek. Aipatzekoa da ikusgai ipinitako argazki bilduma: 1926. urtean hasi eta 2010era bitartean, probetan zein bestelako ekitaldietan hartutako 1.300 argazkitik gora ikus daitezke erakusketa

areto horretan, ondo sailkatuta eta bati baino gehiagori oroitza-pen politak ekartzeko modukoak.


### Bizikletaren zozketa

Horrez gain, txirrindulariek sinatutako 60 bat elastiko ere ikus daitezke, domina, garaikur, seilu eta bestelakoekin batera. Erakusketa aretoko bilduma apirilaren 10era arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara eta Armagintzaren Museokoa apirilaren 30era arte, eguaztenetik zapatara 16.00etatik 20.00etara eta domeketan 10.30etatik 12.00etara. Ikustera joaten diren guztiak, gainera, bizikleta ederra eramateko zozketan sartuko dira.



## Agirrebeña anai-arrebak Azpeitian

ZAPATUAN, SAN JOSE EGU-NEAN AZPEITIKO IZARRAITZ FRONTOIAN "TRIKITIXA IN-DARTU eta hedatzeko asmoz" egin ohi den trikiti festan sei bikote edo taldek hartu zuten parte eta tartean izan ziren Eibarko Agirrebeña anaia-arrebak (Ander eta Aintzane). Jaialdian estilo ezberdinak nahastu eta batu ziren: Zarauzko Arkaitz Allur trikitalariez gain, Javier Lopez Jaso eta Mar-



celo Esrich jazz estiloko bikotearen doinuak eta Xabier Solanoren "Esne Zopak" proiektua entzuteko aukera izan zuten jaialdira joandakoek.


## Nicolas Pellerin et Les Grands Hurlleurs



BIHAR (ZAPATUA, HILAK 26) 20.00ETAN HASIKO DA "NICOLAS PELLERIN ET LES GRANDS HURLEURS" QUEBEC-EKO TALDEAREN EMANALDIA Coliseoan (5 euro). Eibarkoa taldeak Euskal Herrian emango dituen bi kontzertuetako bat izango da (Zizurkilen izango da bestea). Nicolas Pellerin (ahotsa, biolina, lehen biolina, kaxa eta oinak), Simon Marion (ahotsa, gitarra eta mandolina) eta Simon Lepage (ahotsa, baxua, kontrabaxua, synthes, loop) euren eskaintza neo-folk eta tradizional garaikidea gure artean aurkeztera datoz. 2009. urtean osatu zenez geroztik, gurean aurrenekoz bira eskaintzen dihardute musika tradizionalari emandako albumik onena osatzeagatik orain dela gutxi Quebeceko Felix de l'ADISQ Saria jaso duen taldeko kideek.

## "Zomorroak" liburutegian

ZURRUMURRU ANTZERKI TALDEAK BIHAR ZAPATUKO IPUI-NAREN SAIO BERRIA eskainiko du Portalean, umeen liburutegian, 18.00etatik aurrera. Kutxak babestuta antolatutako ikuskizunean "Zomorroak" lanarekin eder to pasatzeko aukera egongo da. Emanaldiak 50 bat minutuko iraupena izango du eta 5 urtetik gorako umeentzat egokia da. Ohikoari jarraituta, sarrera doan izango da.



## Hitano ikastaroa

UDALAK, UDAL EUSKALTEGIAK ETA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEAK elkarlanean hitano ikastaroa antolatu dute maiatzerako: 10 orduko iraupena izango duen ikastaroa martitzenetan emango da, 18.30etatik 20.30etara Udal Euskaltegian. Izena emateko epea astelehenean, martxoaren 28an hasi eta apirilaren 15ean amaituko da; ikastaroaren prezioa 10 eurokoa da.

## Bertso Aste arrakastatsua

AURREKO EGUENEAN DEPORREN JON MAIAK ETA IGOR ELORTZAK ESKAINITAKO TABERNAKO SAIOAREKIN abiatu zen Arrate Kultur Elkartearen eskutik urtero ospatu ohi den Bertso Astea. Kultun egiten diharduten beharrak direla eta aurten eszenatoki aldaketa izan duen bertsolaritzaren inguruko jardunaldi berezia zapatuan agurtu zuten, Amaia Agirre, Sustrai Colina eta Mikel Arrillaga bertsolariek girotutako bertso bazkariarekin.



## laburrak

### RUGBIKOEN ZOZKETA

Rugbi taldekoek egindako zozketan saritutako zenbakiak hauek izan dira: lehenengoa 685 (entregatuta), bigarrena 686 (entregatuta) eta hirugarrena, berriz, 1.011 (bi MP3, jasotzeke). Irabazleak txartelarekin joan beharko du tabernara, saria bertan eskatu eta jaso ahal izateko.

### JUBILATUEN TXANGOIA

Untzagako jubilatutako etxeak irteera antolatu du apirilaren 13rako, Frias-eko gaztelura (Burgos). Irteera 08.30etan izango da eta bisita gidatua 11.15etan hasteko asmoa dute. Bazkaria 14.00etan La Alhama jatetxean (Medina de Pomar) izango da eta bazkalostean denbora librekoa egongo da, nahi duenak Medina bere kontura bisitatzeko aukera izan dezan. Eibarrera buelta 19.00etarako aurreikusten dute.

### TOPAKETA PALINDROMISTA

Apirilaren 2an (zapatua) Nazioarteko Klub Palindromistaren topaketa egingo da Ermuan. Egun osorako egitaraua osatu dute eta abiapuntua 10.30etan Lobiano Kulturguneko ikusentzunearen gelan izango du. Egunean egindako guztiak internet bidez emitituko dituzte eta zuzenean jarraitzeko aukera izango du nahi duenak.

### "REPUBLICADOS"

Teatro Interior taldekoek agurtuko dituzte aurten Antzerki Jardunaldiak, apirilaren 19an Coliseoan estreinatuko duten "Republicados" antzezlanarekin. Kutxako webgunean sarrerak aldeztu aurretik erosteko aukera dago, 9 eurotan.

AGUS  
PEREZ

Kolaborazioa



## Hiru antzezlan euskaraz

Hil honetan hiru antzezlan emango dira euskaraz Eibarko Antzerki Jardunaldietan. **27an PRESIDENTE ANDREAK** ekarriko du Nexo konpainiak. Werner Schwab egile austriarrak hil arte jardun zuen bere aberriko oinarrari erlijioso eta politikoen kontra, eta obrako hiru emakumeek testu mamitsu bat eduki dute esku artean. Gainera, Julia Marinen itzulpenarekin, lehendabizikoz antzeztzen ari da Schwab euskaraz.

**30ean Pikor taldeak XL TOWN** lanak arropari buruzko kontuak aztertuko ditu. Taldeak gazte-ikuspegitik aurkezten ditu gai sozialak, baina oraingo honek adin guztietako ikusleak onartzen ditu. Emanaldiak lau atal independente ditu eta antzezleak kementsu dabiltsa argumetuko rol ugarietan. Bestalde, oso politak dira eszenatokia, argiak eta jantziak.

**SEKULA BAI** etorriko da **31n Korrika Kulturalaren eskutik**. Kabaret estiloko esketx segida entretenigarria egingo dute taula gaineko bost aktoreek, Itziar Lazkanoren zuzendaritzapean, eta ikusleek barre egingo dute gaurkotasunezko gai askoren kontura.

## “Luces de Bohemia”



Teatro del Temple

BARIXAKUA

25

20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Ramon M<sup>a</sup> Valle-Inclán  
ZUZENDARIA:  
Carlos Martín  
ANTZEZLEA:  
Ricardo Joven, Pedro  
Rebollo, Rosa Lasierra  
IRAUPENA: 105 minutu

1920an idazleak planteatu zuen estetikak errealitatea ikusteko modu berria ekarri zuen: esperpento kontzeptuaren benetako luxua eskaintzen diguna. Proposamen bilutzua eta urratzailea, sasoi hartako gizartearen elementu guztiak islatzeko eta gaur egungoarekin alderatzeko.

DOMEKA

27

20.30  
Coliseoan

EGILEA:  
Werner Schwab  
ZUZENDARIA:  
Ricardo Padilla  
ANTZEZLEAK:  
Justi eta Karmele  
Larrinaga, Lola Markaida  
IRAUPENA: 85 minutu

## “Presidente andreak”



Nexoteatro

## “Los corderos”



Histrión Teatro

ASTELEHENA


28

20.30  
Unibertsitatean

EGILEA/ZUZENDARIA:  
Daniel Veronese  
ANTZEZLEAK:  
Gema Matarranz, Paco  
Inestrosa, Enrique  
Torres, Elena de Cara,  
Manuel Salas  
IRAUPENA: 65 minutu

Testuak egileak betidanik aztertu dituen topikoak biltzen ditu. Gizarte degradatu eta sasoi latz hauei buruzko zeharkako hainbat aipamen gordin aurkituko ditugu, familia “biltzeak” dakarren poz eta sasi-lasaitasuna zalantzan jartzeko. Familia, lagunak, auzoa, iragana eta oraina biolentzia giro ilun batean murgilduko dira.

## “XL Town”



Pikor Teatro

EGUAZTENA

30

11.00/20.30  
Coliseoan

EGILEA: Jokin Oregi  
ZUZENDARIA: Carmen Di Bella  
ANTZEZLEAK: Aintzane Crujeiras,  
Miren Gaztañaga, Jon Koldo  
Vázquez, Pako Revueltas  
IRAUPENA: 75 minutu

EGUENA

31

20.30  
Coliseoan


## “Sekula bai”



ZUZENDARIA: Itziar Lazkano  
ANTZEZLEAK: Loli Astoreka,  
Edu Gabiña, Mikel Losada,  
Lander Otaola, Galder Pérez  
IRAUPENA: 80 minutu

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ANE Azpiri, domekan hiru urte egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, MAIALEN, astelehenian urte bi bete zenduazelako. Laztan haundi bat etxekuen partez.




Martxoaren 19ttik bat gehixago gara famelixan. Ongi etorri, GALDER!



Zorionak, IZARO, gure etxeko printzesak atzo urtetxo bat egiñ eban-eta. Etxeko guztien partez.




Zorionak, OIHANA, gure etxeko txikixak 30 urte egin diitu-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANTON, gure bihotzito, urtebete egitten dozu-eta. Aitxitxa Txomin eta ama M<sup>a</sup> Luisaren partez.





Zorionak, IHART, astelehenian hiru urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat danon partez!!!




Zorionak, OIHANE, bixar zazpi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, ANE (hillaren 5ian urtia bete zendualako) eta AINARA (atzo lau urte egin zenduaz-eta). Eibarko amama eta aitxitxaren partez.



Zorionak, KOLDO Estenaga, martitzenian bost urte beteko dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, ANDER Egurrola, domekan 12 urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, MADDI, zure zortzigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat eta ondo pasa eguna, etxekuen partez.

## zinea Coliseoan



**"Sígueme el rollo"**  
Zuzendaria: Dennis Dugan  
Aktoreak: Adam Sandler, Jennifer Aniston, Nicole Kidman, Brooklyn Decker  
**26an: 19.45**  
**28an: 20.30**



**"Winter's Bone"**  
Zuzendaria: Debra Granik  
Aktoreak: Jennifer Lawrence, John Hawkes, Kevin Breznahan, Dale Dickey  
**25ean: 22.30**  
**26an: 19.45/22.30**  
**27an: 19.30**  
**28an: 20.30**



**"Encontrarás dragones"**  
Zuzendaria: Roland Joffé  
Aktoreak: Olga Kurylenko, Unax Ugalde, Derek Jacobi, Dougray Scott  
**25ean: 22.30**  
**26an: 22.30**  
**27an: 19.30**  
**28an: 20.30**

### HILDAKOAK

- Carmen Aramendi Larrañaga. 88 urte. 2011-III-16.
- Isidora Muguruza Lizaso. 86 urte. 2011-III-17.
- Iñaki Sarasketa Egiazu. 88 urte. 2011-III-17.
- Eulogio Zabaleta Idigoras. 86 urte. 2011-III-18.
- Jose Antonio Robledo Corcuera. 45 urte. 2011-III-18.
- M<sup>a</sup> Cruz Fidalgo Alvarez. 70 urte. 2011-III-19.
- Petra Benítez Galán. 95 urte. 2011-III-23.

### JAOTAKOAK

- Erica Castelo De la Fuente. 2011-III-12.
- Oier Etxeberria Albizu. 2011-III-15.
- Telmo Olaya Moreno. 2011-III-17.
- Aimar Padilla Carretas. 2011-III-19.

## horoskopoa

**ARIES**

Egunotako eguraldi onak alaitasuna ekarri dizula dirudi. Umoretsu zabilta eta bizipoza kutsatzen diezu inguruan dituzun guztiei.

**TAURUS**

Asteburuan aspalditik espero zenuen zerbait gertatuko da. Gauza ona izango bada ere, ez da zuk buruan zenuen moduan izango.

**GEMINI**

Gauzak hasi eta amaitu egiten dira; oraingoan ere hori gertatu da. Baina ezin zara kexatu, oroitzapen onekin geldituko zara-eta.

**CANCER**

Zerbait pasatzen den bakoitzean erruduna topatzen saiatzen zara; baina horrek ez dizu laguntzen. Gauza onak hartu kontuan.

**LEO**

Etxeokokin zakar zabilta azken aldi honetan. Saiatu gozoagoa izaten, zu laguntzea besterik ez dute nahi. Noiz kurturatuko zara horretaz?

**VIRGO**

Aste Santurako planak egiten zabilta; baina, momentuoro planaz aldatzen bazabilta, behin eguna helduta ez duzu ezer egingo.

**LIBRA**

Udaberriaren etorrerarekin batera, osasuna apur bat makalduko zaizu; baina, lasai, egun gutxiko kontua izango da-eta. Atttxis!

**SCORPIUS**

Aste honetan ezusteko galanta izan duzu, baina ez zaitetz kezkatu, ez baita ezer larrik izango. Normaltasuna laster itzuliko da.

**SAGITTARIUS**

Azken aldian planak ez zaizkizu zuk nahi zenuen moduan irtetzen. Pazientzia izan behar duzu, besterik ez, den-dena helduko da-eta.

**CAPRICORNIUS**


Lagun batek huts egingo dizu eta horrek min handia emango dizu, inondik inora ere espero ez zenuelako. Denborak esango du.

**AQUARIUS**

Lasaiago hartu beharko zenuke bizitza, ezinezkoa da-eta dena ondo egitea. Gehiegi eskatzen diozu zeure buruari eta hori ez da ona.

**PISCIS**

Gaur zure bizitzako egunik garrantzitsuenetarikoa izango da. Ziklo berri bati hasiera ezinhobea emango diozu. Zoriontsua izan!

**ORDU ALDAKETA ASTEBURUAN**

Europako Batasunak ezarritakoari jarraituz, martxoko azken domekan (hau da, etzi) udaberriko ordutegia sartuko da indarrean. Horretarako, **zapatutik domekarako goizaldeko 02.00ak ailegatzean, erloju guztiak ordubete aurreratu egin beharko ditugu, 03.00etaraino**. Beraz, ofizialki **ORDUBETE GUTXIAGO izango du asteburu honetako domekak**. Horrela, agur esango diogu urriaren 24az geroztik indarrean izan den neguko ordutegiari. Udako ordutegia honek **urriaren 30era arte** iraungo du; egun horretan negukoa jarriko da berriro indarrean.

**Barixakua 25****ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Luces de Bohemia" (Teatro del Temple, Zaragoza). Coliseoan.

**KONTZERTUA**

**23.00.-** Rock Privado (Donostia) taldearen kontzertua, "Caras" diskoak aurkezteko. Sarrera doan. Koskor tabernan.

**Zapatua 26****LAPIKOTXIKI TAILERRA**

**10.00.-** Lapikotxiki tailerra, Esti Gonzalezekin. Umeen liburutegian.

**IKASLE-OHIEN BATZARRA**

**11.00.-** Armeria Eskolako ikasle-ohien urteko batzarra.

**12.00.-** Argazki lehiaketako sari banaketa ekitaldia.

**12.15.-** Hamaietako, talde-argazkia.

**13.00.-** Hitzaldia: "Emprender. La experiencia de Anbotó", Xabier Uribe-Etxebarriaren eskutik. Armeria Eskolan. Bazkaria Arrate Hotelean.

**ERROTA GAZTELEKUA**

**17.00.-** Errota gaztelekuari agur esateko jaialdia. Errota gaztelekuak.

**ZAPATUKO IPUINA**

**18.00.-** "Zorroak", Zurrumuru Antzerki Taldearekin (5 urtetik gorakoendako, euskeraz). Umeen Liburutegian.

**Domeka 27****KONTZERTUA**

**12.30.-** Cielito Musika Bandaren kontzertua: "El abanico" (A. Javaloyes, pasodoblea), "Katuska" (P. Sorozabal, zarzuela), "Folk song suite" (R.V. Williams, suite), "En un mercado persa" (A.W. Ketèlbey, intermedioa) eta "Oregon" (Jacob de Haan, fantasia). Zuzendaria: Iñaki Orbegozo. Coliseoan.

**KORRIKAREKIN MENDIRA**

**09.07.-** Korrikarekin mendira: Deba-Lastur-Deba ibilbide gidatua, Garbiñe Aizpuruak ikuspuntu historikotik abiatuta emango dituen azalpenekin lagunduta (4 ordu). Irteera Ardantzako tren geltokitik.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Presidente Andreak", euskeraz (Nexoteatro, Bizkaia). Coliseoan.

**Astlehena 28****ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Del maravilloso mundo de los animales: los corderos" (Historiòn Teatro, Granada). Hezkuntza Esparruan.

**Martitzena 29****IKASTEN**

**10.00.-** "Comercialización de la pintura, subastas, marchantes", Ricardo Aldamerekin. Armeria Eskolan.

**Eguaztena 30****IKASTEN**

**11.00.-** Kafe-tertulia: "Memoria historikoa". Klub Deportiboan.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**11.00 eta 20.30.-** "XL Town", euskeraz (Pikor Teatro, Araba). Coliseoan.


**Eguena 31****IKASTEN**

**10.00.-** "Sinbolismo de la mitología clásica en la pintura", Ricardo Aldamerekin. Armeria Eskolan.  
**11.30.-** Bideokonferentzia: "Perfiles del futuro (los próximos 25 años)", Félix Aresen eskutik. Unibertsitate Laboralean.

**ANTZERKI JARDUNALDIAK**

**20.30.-** "Sekula bai", euskeraz (Abar Produzioak, Bizkaia). Coliseoan.





## erakusketak

- Martxoaren 26ra arte  
**MERCEDES CANTERO**ren olio-margoen erakusketa. Untzagako Jubilatuta Etxean.
- Martxoaren 31ra arte  
**J.A. PALACIOS**en "Kaian" argazki erakusketa. El Ambigú tabernan.
- EDUARDO MAGUNACELAYA**ren argazki erakusketa. Portalea tabernan.
- "2010, URTE BAT IRUDIETAN" Ekinklik kolektiboaren argazki erakusketa. Kariika tabernan.
- Apirilaren 8ra arte  
**LLORENÇ PIÉ**ren argazki erakusketa. Deporren.
- Apirilaren 10era arte  
**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**ren 85. urteurreneko erakusketa. Portalean (erakusketa aretoan).
- Apirilaren 30era arte  
**EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA**ren 85. urteurreneko erakusketa. Portalean (Armagintzaren Museoa, 5. pisuan).

## lehiaketak

- **XVII. Ipurterre lehiaketa (LH eta DBH)**  
Informazioa eta lanak entregatzea: Martxoak 25era arte, ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu, 11).
- **XIV. Eguen Zuri lehiaketa.**  
Aratosteekin lotutako argazki-lehiaketa. Lanak entregatzea eta informazioa: Apirilaren 5era arte, arrate.kultu@eibar.org edo 943202299 zenbakia. Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16-1), bulegoetan edo tabernan.

## farmaziak

- 25. barixakua**  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
GAUEZ Cortina (Zubiaurre, 29)
- 26. zapatua**  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
GAUEZ Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)
- 27. domeka**  
EGUNEZ Urizar (J. Etxeberria, 7)  
GAUEZ Ibarrondo (Zeharkalea, 2)
- 28. astelehena**  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 29. martitzena**  
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 30. eguaztena**  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
GAUEZ Larramendi (Calbetón, 19)
- 31. eguena**  
EGUNEZ Las Heras (Sostotarren, 10)  
GAUEZ Las Heras (Sostotarren, 10)
- 1. barixakua**  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia .....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

3						6	5
6		7	2		4		
				6			7
	8		1		6		5
		9				2	
	3		2		5		1
	1			7			
			6		2	5	9
8	6						1

## DENBORAPASAK

5	7	6	1	3	4	2	8	9
8	2	4	9	5	6	3	1	7
3	9	1	8	2	7	5	4	6
7	8	2	3	6	5	4	9	1
4	5	3	9	9	1	6	2	8
1	6	9	4	8	2	7	5	3
6	4	7	5	1	9	8	3	2
2	1	8	6	4	9	9	7	5
9	3	5	2	7	8	1	6	4

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Barrena kalean. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta komuna. Igogailua eta fatxada berriztuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. 192.000 euro (negoziagarria). Tel. 626-100783 eta 943-254533.

– Etxebizitza salgai Eibarko erdialdean. 126 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukalde eta trasteroa. Guztiz berritua. Argitsua. Tel. 626-203838.

– Errekatxun pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta despentsa. Tel. 636-930962 eta 649-091192.

– Estrenatzeko pisua salgai Amañan. 68'5 m<sup>2</sup>. Logela bi, egongela, sukalde eta komun bi. Igogailuarekin. Argitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 687-122826 eta 943-901908.

– Pisua salgai Amañan. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Oso argitsua. Bizitzera sartzeko moduan, altzari berriekin. Tel. 620-917234.

### 1.2. Errentan

– Eibarren logela independentea alokagai. Komuna, mikrouhinak, telebista.. Garajea aukeran. Tel. 652-765200.– Barrena kalean pisua alokagai. Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 697-721417.

– 3 logelako pisua alokatuko nuke Eibarren. Tel. 681-322442.

– Pisu txikia (logela bi) alokatuko nuke Eibarren. Tel. 693-509830.

– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 693-950032.

– Logela alokagai Eibarren. Tel. 645-538674.

– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-238113.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Urkizu inguruan gazteentzako lokala hartuko nuke alokairuan. Deitu 20.30etatik aurrera. Tel. 656-736509.

– Lokala alokagai Amañan. 180 m<sup>2</sup>. Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garajea alokagai San Andres pasealekuan. 7 m<sup>2</sup>. Trasteroarekin. Tel. 943-120308.

– Garajea alokagai Errebal kalean, Bolintxoren ondoan. Zabalik, trasteroarekin (13 m<sup>2</sup> + 6 m<sup>2</sup>). Tel. 687-800230.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 635-355168.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-358709.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 659-037882.

– Neska eskaintzen da orduka etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 635-187901.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Esperientzia. Tel. 648-603029.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 666-008974.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko taberna, jate-txe edo hoteletan. Esperientzia. Tel. 664-067280.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko etxean edo ospitalean eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 638-249775.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko etxean edo ospitalean eta sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientzia. Tel. 688-884746.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Esperientzia. Tel. 608-147559.

– Neska eskaintzen da 16.00etatik 20.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 679-822570.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka edo interna. Tel. 626-068463.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 943-254063 eta 680-278485.

– Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 608-174645.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 635-313375.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 696-509360.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, egunez zein gaez. Klinika-laguntzaile titulua-rekin. Tel. 619-511798.

– Neska eskaintzen da kamarera moduan jarduteko asteburuetan. Tel. 645-366859 eta 943-257261.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 608-820954.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketarako lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-506777.

– Emakume euskalduna eskaintzen da 14.30etatik 16.30etara garbiketarako lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 618-875007.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 943-530795 eta 678-972690.

– Mutila eskaintzen da igeltsero edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-344377.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 690-906085.

– Neska eskaintzen da interna nagusiak zaintzeko. Tel. 646-977562.

– Mutila eskaintzen da peoi edo kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 677-155611.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Arratsalde eta asteburuetan. Tel. 676-035738.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 646-821678.

– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.

## 4.2. Eskaintzak

– Eibarko ileapaindegi batean 1. mailako ofiziala behar da. Tel. 943-254512.

– Neska behar da asteburuetan jate-txe bateko sukaldean lan egiteko. Tel. 943-121262.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Filología Hispánican lizentziatuak Lengoaia maila guztiak ematen ditu. Tel. 653-015628.

– Alemanierazko klaseak ematen ditut. Haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Mendiko bizikleta salgai 6-12 urte bitartekoentzat. Gutxi erabilia. 45 euro. Deitu 21.00etatik aurrera. Tel. 943-204238. Itziar.

– Autorako umeen segurtasun aukia (9-24 kilo) eta egurrezko trona salgai. Tel. 617-256466.

– Ezkontzako soinekoa salgai. 40 tailakoa. Merke. Tel. 617-256466.

– Egurrezko markodun ispilua (1'60x0'60), lkeako koadroak (lorak), latoizko heldulekuak eta flexo-argia (1'50) salgai. Merke-merke. Tel. 943-120308.

### 6.3. Galdu/Aurkitu


– Eraztuna topatu da Julian Etxeberria kalean. Inskripzio-datarekin. Tel. 943-702297.

### 6.4. Bestelakoak

– Lau bizikletarako erremolkea, bolan lotzekoa, erosiko nuke. Tel. 646-293311. Alberto.

# ste.

GESTIÓN TÉCNICA Y EJECUCIÓN DE OBRAS, S.A.



**8** etxebizitza

**63** garaje

**17** trastero

**610 718 244 / 943 700 150**

Aukera ezinhobea:


Garajeak Eibar erdian

**IREKI BIDEA**  
**EZKER RARI**

aralar



MONUMENTU ARTISTIKOA




# LASA JATETXEA

*250 LAGUNENDAKO  
JANGELA*



El Diario Vasco  
"Más gastronomía"  
Sariaren irabazlea  
2009an,  
BANKETEETAKO  
GIPUZKOAKO  
JATETXE  
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK  
ospatzeko toki bikain batean*

**Ozaeta Jauregia**

**Tel. 943 76 10 55**

**Faxa: 943 76 20 29**

**[www.restaurantelasa.com](http://www.restaurantelasa.com)**

**BERGARA**

